

idazleak:

gerardo markuleta,

edu zelaieta,

miel a. elustondo

arantza lopez marugan



trebiñu
herri izendegia

ueu
udako ikastaroak

ekainak 8
araba euskaraz 03
oion

oro bil, borobil

santa katalina
lorategi botanikoa

GEU ALDIZKARIKO 2002 / 2003 HARPIDETZA KANPAINEN ZOZKETA

Honako hauek dira Geu aldizkariako 2002/2003 harpidetza kanpainetan (urtekoa + bakar 1) SARITUAK suertatu diren HARPIDEDUNAK (jar zaitezte gurekin harremanetan sariak bideratzeko):

ZORIONAK!

Aldi berean, MILA ESKER 'BAKAR
1' HARPIDETZA KANPAINAN
LAGUNDU DIGUZUEN GUZTIOI

- **ROCIO DE ANDRES EZIOLAZA**

BAZKARI EDO AFARI BAT ARAMAIOKO ITURRIETA SAGARDOTEGIAN (2 lagun)

- **AITOR AHEDO**

75 EUROKO LOTEA PITTILIN GORRI SEX-SHOPEAN

- **MARIAN PECIÑA APAOLAZA**

AHO GARBIKETA ERROTA HORTZ KLINIKAN

ORAINDIK GUTXIENEZ

625

HARPIDEDUN GEHIAGO LORTU BEHAR DITUGU ALDIZKARIAREN DEFIZITARI AURRE EGITEKO

(orotara ia 23.000 euro gutxiago jaso ditu aldizkariak 1999ko legegintzaldi aldaketaz geroztik, bertako erakundeen dirulaguntzen jaitsiera eta publizitatea kentzeagatik).

HORREGATIK, ZUEN LAGUNTZA BEHAR DUGU: NOLA? ZUEK HARPIDEDUN BERRIAK EGINEZ.

ESKERRIK ASKO!



orain duzu ikasi duzun
euskara praktikan jartzeko aukera



matrikula zaitez udako ikastaro eta barnetegietan

Iruñea: 948 22 22 46 • Lesaka: 948 63 77 96 • Gasteiz: 945 15 43 41 • Errioxa: 945 60 10 87

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ahorik aho:



8-11.
orr.

IDAZLEEKIN MINTZO:
GERARDO MARKULETA,
EDU ZELAIETA, MIEL A.
ELUSTONDO, ARANTZA
LOPEZ MARUGAN

STA. KATALINAKO
LORATEGI BOTANIKOA

12-13..
orr.



gaika:



16-17..
orr.

asafes, gaixo mentalen
elkartea & bolondresak

ROBERTO GLZ. DE VIÑASPRE:
TREBIÑUKO HERRI IZENDEGIA

18-19.
orr.



ARABA EUSKARAZ
2003. OION
EKAINAK 8

sukaldaritza zikloa euskaraz
Gamarrako Ostalaritza eskolan

22.
orr.

23-25.
orr.

UEU/03

GAINERA...

• Han-hemenka (4-7. orr):

Iritzian: kladio landa. kronika: udal
hautzaindegien auzia. kaleak dio: araba
euskaraz . araba bixotzian. izena. ikusi:

martxelo otamendi eta kazeta berria

• Euskaltasunean lagun (15. orr): alicja
okoniewska

• KulturAisialdiari so (27-39. orr):

AGENDA (27). IDAZLEEN GURPILA (VII)-gerardo
markuleta: "nire maleta bikia" (28-29).

HISTORIA ZERTZELADAK-erlantz urtasun eta
gaizka aranguren: nabarralde, nortasun
politikoa berreskuratu (30-31). ARTE TXOKOA-
ambulance (32-33). naturaren isladak (33).
bidaia: peru (34). sukaldaritza (35). denbora-
pasa (35). artista berrien txokoa (36). geu-ren
gunea; kultur errota (37-38). komikia (39).

Azala ...



Naturaren edertasunaren omenez ekaineko
azala Trespondeko Santa Katalinako lorategi
botanikoarentzat da.

Aldi berean, Araba euskaraz-era joateko
gonbitea egiten diegu irakurle guztiei: Oionen
elkar ikusiko dugu, ba!

argazkia: edorta sanz

>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)

Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkariako batzordea: josune veleaz de mendizabal, edorta sanz, edurne
begiristain, estitxu breñas eta
david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi,edurne begiristain,
josune veleaz de mendizabal
Argazkiak: edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa: e.b.z.
Testuen orrazketa-zuzenketa-

osaketak: e.b.z.

Maketa: patirke sanz eta david alvez

logoa: io grafix

komikia: iñigo sarasola

Kolaboratzaileak: iñaki zorrakin, abarrots, kladio landa, gerardo
markuleta, erlantz urtasun eta gaizka aranguren,
arabako argazki elkarte, gamarrako ostalaritza eskola,
ania ibisate, oskar ugarte eta luma aldizkaria.

Publizitatea eta Banaketa: edurne begiristain

Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, e.b.z.,

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak
ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Antzarakako
Antena Santia





kludio landa

Euskadi Gaztea-ko esatari
eta Sorginen Laratza-ko kide

TXOTXI-PARTY-ak

Lagun asko izateak garrantzia badu ere askoz ere interesgarriagoa da lagun ezberdinak izatea, hau da, aniztasuna eta mestizaia kulturalki onuragarria den neurrian, adiskidetasunaren alor zabal eta konplikatuan balio handiko kontzeptua da.

Era askotako festak edo ekitaldiak badira ere nik nahiago ditut "Txotxi" izendapena dutenak. Jakina, izendapen hau neronek jarritakoa da, beraz, ez duzue beste edonon ikusiko. Jendeak, normalean, ez ditu "txotxi-festa" izenekoak antolatzen edo halako izenik behintzat ez du erabiltzen beraien ospakizunetarako. Hala eta guztiz ere neuk argi ikusten dut zein den "txotxi-festa" eta zein ez den.

Urtean behin egiten dugun txotxi-afari-festa batean konturatu naiz ze- nolako giza-unibertsoa osa daitekeen une konkretu eta leku zehatz batean. "Pil-pil" izeneko jatetxe berezian afaldu genuen eta berezia diot uraren gainean mugitzen den untzi batean egin dutelako jatetxea. Ibaizabal-en afaltzea gomendatzen dizuedan beste esperientzia bat da.

Afaria izan aurretiko zita Bilboko taberna berri batean egin genuen eta jatetxeak bezala, taberna honek ere baditu bere berezitasunak: jatetxe-untzia ateratzen den lekutik gertu dagoen "Viva Bilbao" txotxi-tokia hori iruditu zitzaidan... txotxia (egia esan, tabernaren izena idatzita ikusi nuen unean errotulki batez "Gora" idazteko gogoia sartu zitzaidan baina... tira!).

Pixka bat berandu iristeak sentsazio ezberdinak eskaintzen dizkizu, zu heltzen zarenerako txotxi-festan izango diren guztiak ez badira, giza-ekintza

horretan parte hartuko duten gonbidatu ugari dagoeneko bertan izango direlako eta zu horien erdian egonda txotxi-morreo eta besarkaden jaialdian murgiltzen zarelako bapatean. "Aspaldiko", "Ze guapo zauden!" edota "Bazen heltzeko garaia" entzuten dituzun bitartean ezagutzen ez duzun batek ardoa edateko gonbitea egiten dizu (zoragarria!).

Untzian gaudenean nire inguruan dauden beste 39 gonbidatuen errepasoa egiten dut eta konturatzen naiz gehienak ezagunak direla, baina era berean sekula ikusi ez ditudanak ere badirela. Nire uste apalean, txotxi-irakurle maitea, esperientziak irakatsi didan bezalaxe, festa on bat egiteko gehiengoak ezagutzen ez dituen pertsona batzuk gonbidatu behar dira, honek edozein txotxi-party-ri beharrezkoa den emozioa ematen diolako. Oso ondo egon daiteke (eta badago) aspaldiko lagun zaharrak ikustea baina jende berria ezagutzeko parada ematen ez dizun festak ez du merezi... kontuan hartu esandakoa.

Afariaren lehenengo partean ez da gauza handirik egiten, beno... afaldu bai, afaltzen da (honek gainera festaren bigarren atalerako garrantzia du). Baina benetan interesgarria dena mahaitik altxatu eta beste gonbidatuekin hitz egiten hasten zarenean da. Ez zait argi gelditzen hortik aurrera gertatutako guztia eta hori ere oso seinale ona da... hurrengo egunean buruko mina kentzeko ahaleginak egiten ditudan bitartean gaez ezaguturiko pertsona berrien zerrenda egiten saiatzen naiz baina ez ditut guztien izenak gogoratzen... beno eta aurpegiak ere ez. Hurrengo festarako ere niretzat berriak izango dira... hau txollua!

haurtzaindegia

Udal haurtzaindegietan onartu ez dituzten 0-3 urteko umeen gurasoen komunikatua:

Pasa den maiatzaren 13an aldarrikatu ziren udal haur-eskoletan onartutako umeen behin-behineko zerrendak. Hiriko 550 ume baino gehiago geratu dira lekurik gabe (behin-betiko zerrendek, maiatzaren 27an argitara emango direnek, ez dute apenas aldatuko kopuru hori).

550 ume ezingo dira udal haurtzaindegira joan. Memento honetan Gasteizen 550 familia daude, arazo larri bat dutenak (askorentzat une hauetan duten larriena, apika), eta ahal dutena egin behar izango dute beren seme-alabak zaintzeko. Batzuek beren lana utzi beharko dute, beste batzuek auskalo nongo haurtzaindegi pribatu batera jo beharko dute (lekurik geratzen bada behintzat), beste batzuek aitona edo amona esplotatu beharko dute, edo pertsona bat kontratatu (ordaindu ahal badiote...).

Okerrena da joan den urtean gauza bera gertatu zela, eta baita aurrekoan ere... Nolatan ez dute arduradunek irtenbiderik topatu urteetan luzatzen ari den arazo honentzat?

Udal haurtzaindegia ez da luxua, premia baizik. Eta ez da debaldeko zerbitzua, familia bakoitzak bere sarreraren arabera ordaintzen duenez gero. Ez gara doakotasuna eskatzen ari; eskatzen dugun gauza bakarra Gasteizko haurtzaindegirako lekuen ugaltzea da, gure seme-alabak hobeto zain ditzagun familiarentzat gero eta zailagoa bihurtzen ari den gizarte eta hiri batean (etxebizitzaren kostu altua eta hipoteka astunak, aita eta ama etxetik kanpo egin behar dute lan, batera malguak ez diren lan-baldintzak...).

Hau al da politikoei barra-barra darabilten familiaren eta jaiokuntzaren aldeko politika? Nola konpontzen dira haiek beren seme-alabekin?

Ardua Gasteizko Udalarena da (udal haurtzaindegia diren heinean) eta Eusko Jaurlaritzarena (0-3 tartearen gaineko konpetentzia baitu). Encina Serrano kultura zinegotzi anderea, Anjeles Iztueta hezkuntza sailburu anderea: lau hilabete falta dira ikasturte berriaren hasierarako eta hori denbora nahikoa da bi erakundeen artean irtenbide bat bilatzeko eta abian jartzeko.

Irtenbidea posiblea da. Auzoetan hutsik dauden egoitzak aurki daitezke erraz, gastu handirik gabe egokitu daitezkeenak, eta ondo prestatutako irakasleak langabezia-zerrendetan. Hori da behar den guztia: egoitzak eta irakasleak. Eta arazoa konpontzeko borondatea, noski.

**DATORREN
IRAILERAKO
IRTENBIDE BAT
NAHI DUGU,
BEHAR DUGU.**

Oharra: Anjeles Iztueta anderea, maiatzaren 16ko prentsaurrekoan, datorren urtean mila plaza sortuko direla aipatu zuen, eta haietan lehentasuna emango zaiela "zona desabantailatsuei, landa-garapenekoei edota adin horietarako plazak ez dituztenei". Nahikoa argi dago ez direla datorren ikasturterako abian jarriko eta, bestalde, Gasteiz ez zen aipatu ere egin, eta ez dirudi "lehentasun" bezala ageri denik. Planak ez ditu kontuan hartzen, agi denez, hiri honetako premiak.

Ale honetan ez dugu aurtengo Arabako Bertsolari Txapeleketaren inguruko bigarren kronika argitaratzen, uztaileko alean txapelduna luze mintzatuko zaigulako txapelketaren nondik norakoez

ARABA EUSKARAZ-2003: OIONera, "oro bil borobil"

Urtero izan ohi den moduan, aurten ere, ekainarekin batera euskararen eta gure ikastolen alde festa egiteko parada iristen zaigu. 2003 honetan Oionen dugu hitzordua, San Bizente ikastolaren 25. urteurrenarekin batera, eta horretarako ekitaldi, kontzertu, tailer, jolasak eta abar izango dira, adin guztietako jendeak bere tartetxoa aurki dezan. Denok gonbidatuak gaude, joateko asmorik bai?

1.- Aurtengoan Oionera joateko asmorik
ba al duzu?

RUBEN ORTIZ DE URBINA
Mekanikaria

Bai.
Euskararen alde egiteko, Araban gutxi batzuek erabili eta lantzen dutelako.

2.- Zergatik?



ILARGI MARTINEZ
Ikaslea

Bai.
Bertan izan ohi den festagatik eta jende berria ezagutzeko aukeragatik, euskararen erabilera dela medio.



ARANTZA IBAÑEZ
Ikaslea

Ez.
Ez dut ohiturarik horrelakoetan parte hartzeko, baina onartzen ditut.




DANIEL ALLENDE
Garabilea

Bai.
Festa eta euskaragatik, mugitu beharra dago-eta.

Izena

Eneko Llanos, triatleta.

Mundu mailako txapelduna

ZORIONAK!

arg.: arabako egunkaria

Martxelo Oñamendik 'berria berri' kanpaina eta ekainean gure artean izango dugun kazeta berriaren zenbait xehetasun aurkeztu zituen Gasteizen, eta aldi berean, Eneko Llanos triatletak bere babesa adierazi zion proiektuari.



ongi etorri!!!

Araba bixotzian



josune veleaz de mendizabal

argazkiak: edorta sanz

GERARDO MARKULETA

Joseba Jaka literatur beka: irabazle olertian

Batak ez du bestea kentzen

1963an Oñatin jaio eta Gasteizen bizi den Gerardo Markuleta poesian igeri egiten du, hainbat poema liburu argitaratu dituela, baita kontakizun eta ipuinen munduan ere. Julio Cortazar eta poesia katalana euskaraz eta euskal poeta zenbait gaztelaniaz ere eman izan ditu. Bere lanen artean: Larrosak, noizean behin; Sagarraren hausterrea; Asier eta egia gurutzatuen liburua; Auta-lanerako poemategia; Ipuin euskaldunak; Nahiago nuke mutila banintz..., egun, besteak beste, "Batak ez du bestea kentzen" xede duelarik.

- Nola aurkeztuko luke bere burua Gerardo Markuleta?

Apal eta moduz, ahal dela: literatur lanetarako zaletasun handia izan, gaitasun pittin bat daukala uste, eta horretan tematu den idazle-irakurle-itzultzailea.

- Aurreko edizioetan ere parte hartu duzu Joseba Jaka beka? Zerk eraman zaitu

edizio honetan aurkezttera?

Zerbait bidaltzen dudana lehen aldia da. Batetik, proiektua bideratu samar neukan. Bestetik, Rikardo Arregi adiskideak aurretik beka lortu izanak, eta haren liburuak gero bide polita egin duela ikusteak dezente animatu nau. Eta epaimahaiko gehienak (publiko izaten da) "nire sokakoak" ez izateak ere tentagarriago bihurtzen zuen erronka.

- Orain lana burutzen ariko zarela pentsatzen dut. Irailerako bukatuta egon behar du eta, zer moduz zabilta?

2004ko iraila da liburua emateko azken data, ez aurtengoa, bestela... Poesia ez da berez etortzen, haren bila joan zaitezen uzten dizu, baina aurkituko duzun segurantzarik gabe. Hori kontuan izanda, martxa politean ari da proiektuaren hezurdura haragiz janzen.

- Aurreratuko al diguzu zer-nolako poesia liburu kaleratuko duzun? Zerk ez du bestea kentzen?

Nire ustez, poema onak trepetan linguistikoko, emoziozko eta adimenezkoa izan nahi du aldi berean, erritmo, musikaltasun, komunikazio,

umore eta probokazioa ahaztu gabe. Poema on batean, mezua guztia da.

Liburuak hiru zati izango ditu: hirugarrenean, "Ertzetako oharra" izenekoan, abesti, albiste, epigrama, manifestu antzekoak eta bestelako jolasak bilduko dira. Beste biak, "Ifernegan" eta "Gosari jendetsua", kontrajarriak dira nolabait, hurrenez hurren bizi-heriotzaz sakon eta maitasun-desamodioaz jolasti jardun nahi dutenez; eta hortik, besteak beste, liburuaren izenburua: "Batak ez du bestea kentzen".

Besteak beste, diot, berba horietan direlako hain zuzen, gure artean izaten (ez) diren elkarriketa askotan, adimenak zein bihotzak maizena ezpaineratzen didaten erantzuna.

Heldu artean

Heldu artean dena da bitarte, zubi, jauzi, saio, ahalegin errepikaezin, baina ezagunaren zapora gazi-gozoaz.

Heldu artean dena da bitarte, hutsune, jausleku, malkar; harriaren eta harearen aldarte aldakor, biziaz.

Heldu artean dena da bitarte, lore hauskor, fruitu ustelgarri, hazi ezin igarrikoa.

Heldu artean dena da bitarte, eskala, geltoki, bidegurutze. Heldutakoan ez dut idatziko.

(Gerardo Markuleta, *Batak ez du bestea kentzen*, poema argitaragabea)



irabazle suertatu diren Gerardo Markuleta, Edu Zelaieta (poesian) eta Miel Anjel Elustondo (saiakeran) idazleen literaturaz arituko gara.

MENDIKO HISTORIA EMAKUMEEN IKUSPEGITIK. Bestetik, kaleratu berri den Arantza Lopez Maruganen "Querida, esto es el Everest" bere bigarren liburuaz ere jardungo dugu.

EDU ZELAIETA

Joseba Jaka literatur beka: irabazle olertian

Muga inguruko olerkiak

Edu Zelaieta poeta gasteiztarak "Muga inguruko olerkiak" prestatzen dihardu. Hauxe baitu olerkian Joseba Jaka beka irabazi ostean duen hurrengo betebeharra. Liburua osatzeko epea hurrengo urteko irailean bukatuko da eta. "Ordura arte egina izatea espero dut", dio gazteak. Edu euskal filologia ikasi eta egun "Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa" izeneko tesia ere burutzen ari da, bekarekin harremana izateaz gain osagarria dena.



- Zerk bultzatu zintuen Joseba Jaka bekara aurkeztera?

Segur aski, literatur beka hauek duten filosofiak. Izan ere, Joseba Jaka beketan irizpide literarioak nagusitzen dira bestelako irizpideen gainetik, irizpide komertzialen gainetik esaterako. Bekadunak aurretik aurkeztutako proiektua gauzatu behar du urte eta erdiko epean. Arrazoizko epe batean alegia, presa handiegirik gabe. Eta gainera, bekadunak argialetxea hautatzeko aukera du. Beraz, bekaduna gustura aritzeko moduko baldintzak direlakoan nago. Eta literaturan, bizitzan bezalaxe, norbera gustura arituz gero emaitzak hobeak izan ohi dira.

- "Muga inguruko olerkiak" lanak harreman zuzena dauka egun egiten ari zaren tesiarekin, ezta?

Bai, hala da. Azken lau urteotan Nafarroako iparraldean ibili naiz, Baztan-Bidasoan hain zuzen, bertako hizkerak aztertzen ari bainaiz. Lotura oso sinplea da: aita bertakoa dut, Berakoa. Dena den, niretzat berreraiketa lana izan da. Hots, ni txikitatik ez nintzen hara joaten; familia harremanak kasik galduak nituen;

aitak ez zidan ez euskara ezta hangoa ere erakutsi, lau gauza kenduta, eta abar. Ziurrenik, beste behin ere, gabeziak (Oteitzak hutsunea esango zuen) sortu du hau guztia. Hortaz, bistan da oso proiektu pertsonala dela, motibazioak ere oso pertsonalak direlako. Bai dialektologian, bai poesian. Hala eta guztiz ere, motibazio ezberdinak dira. Tesiarekin, nolabait, alderdi linguistikoa eta kulturala asebate nahi ditudan bitartean, poesiarekin barne-mundua ezagutu nahi dut.

- Zenbat poema izango dira guztira eta zer da kontatzen dutena?

Zenbat poema izango diren ez dakit. Orintxe, egia esan, badiut mordoxxa bat, azken bolada honetan idazten aritu naizelako. Lanak hiru atal izango ditu: mugalariak, mugak eta hausturak eta barne-mugak. Horiekin gauza asko irudikatu nahi ditut. Hango paisajea, jendea, muga... Kutsu klandestinoa ere bildu nahi dut poesiaren bitartez. Mugako jendea eta mugaldea, eta ez hemengoa bakarrik, beti iruditut zait oso poetikoa. Areago, proiektu osoan badago

aldarrikapen bat: bizi honek lau pareta dituen bitartean, oztopoak eta mugak dituen bitartean, izan gaitezen mugalari, nahi dugularik, salto egiteko. Nahi dugularik, bertako mugak hausteko eta lege arrotzei muzin egiteko.

Beste alde batetik, kanpotik ezarritako mugak, gizarteak inposatutako iritzi motelak, modak eta ergelkeria ageri dira. Batez ere, ergelkeria. Azken batean, mugak hausteko jaio ginen. Mugak haustearena beste mezu nagusi bat da olerkietan.

Eta azkenik, hirugarren atalean bereziki, gizakiok barrenean antolatu gabe ditugun sentimenduen mundua ere agertu nahi dut. Kaosa eta ordena. Muga naturalak. Nolabait ere, mugaren kontzeptuari ahalik eta etekin handiena atera nahi diot, mugaz eta mugez mintzatuz.

- Nola hartu zenuen ebazpena?

Astelehen goiz batean izan zen, eta berria telefonoz eman orduko ia saltoka hasi nintzen. Sekulako ilusia egin zidan. Uste dut mediku batek zera esango lukeela, une horretan hiperbentilatzen ari nintzela.

MIEL A. ELUSTONDO

Joseba Jaka literatur beka: irabazle saiakera arloan

"1959. urtean Renon egin zen lehen euskal jaialdi handiaren inguruan jardun asmo dut"

Miel A. Elustondo (Azpeitia, 1958). Ikastola irakasle izana, editore eta telebista gidoigile hainbat urtez. *Freelance* ari da gaur egun, argazkilari eta idazle, "Espainiako epaile estuek uzten dizkidaten aukera gero eta txikiagoak baliatuz". AEBetako euskaldunen historia eta istorioen gaineko *Basque Blvd* izeneko atala du *Gara* egunkariaren *Igandeko geltokia* gehigarrian. *Maritxu Berritsu* irratsaioko kolaboratzaile. Hamasei hilabete ditu Jaka literatura bekako proiektua idazteko. Beka jaso aurretik Renoko (Nevada) unibertsitatean abuztuan egingo duen argazki erakusketa, eta *Euskaldunon Egunkaria* berrituan argitaratu asmo dituen zenbait erreportaje eta elkarrizketa prestatzen ari zen...

- Urte hartan gertatu zen da aurkeztu duzun lanaren izena. Adierazi izan duzunez AEBetan bizi diren euskaldunen mundua ageriko da saiakeran. Zein urtez ari zara izenburuan?

1959. urteaz. Urte horretan Reno eta Sparks-en -elkarren ondoan daude bi herriak-, jendaurreko lehen euskal jaialdia egin zen. Aurretik ere jaiak egiten zituzten Ameriketara ziren euskaldunek, baina orduko hura *1st Western Basque Festival* izendatu zuten, aurrekoak ez bezalako helburuak zituelako. Batetik, ez zen tokiko festa izan, Mendebaldeko estatu guztietako euskaldunak gonbidatu baitzituzten hartara. Agintariak ere izan ziren: Nevadako gobernadorea, Espainia eta Frantziako enbaxadoreak, euskal komunitatean nabarmenen ziren euskal-amerikarrak... Zer edo zer handia, alegia. Orain dela dozena erdi bat urte hemen "Bai euskarari" festak egitea bezala. Antzeko zer edo zer,

handia, ze 5.000 lagun inguru bildu ziren bazkaritara. Kontua da jaialdiak arrakasta itzela izan zuela eta, harrezkero, antzeko jaiak egiten hasi zirela bateko eta besteko herrietan bizi ziren euskaldunak. Eta, poliki-poliki, euskaldun izateko modu bat ezarri zuen jaialdiak: hizkuntza, janari-ohiturak, herri-kirolak, dantzak...

- Jaialdi haren berri ematea da zure helburua? Zein dira zure lanaren nondik norakoak?

Esan nezake ez dudala deskribapenik egin nahi, ez zuzenean, behintzat. Eta ez dut saiakera zurruna egingo. Ez dut festa haren kontakizun zehatz egingo, ez eta interpretazioa ere. Urte hura hartu dut abiapuntu, eta urte hartan Renon, AEBetan eta Euskal Herrian gertatzen ari diren zenbait gauza kontatzea dut helburu, txirikordan -orain hari bati heldu, gero beste bati, harik eta historia osatu arte. Atalka egingo dut, pusketaka, neuk ere halaxe jaso dut eta jaialdi haren berria.

- Gara-n idazten dituzun erreportajeetan irakurri dizugu Jose Maria Areilza ere jaialdi hartan izan zela. Ez zen bada, hura, oso euskalduna...

Garai hartan Areilza azaldu zen jaialdi hartara, Espainiak Washingtonen zuen enbaxadore zelako. Espainola zen hura, sustarreraino, baina bere "euskal jatorriaz" jardun zuen, Portugaleten jaiotako Mutrikuko kontea. Bilbon gudaroste frankistak sartutakoan beldurgarritzko hitzaldia egin zuen Areilza huraxe bera, Renon, euskaldunon jaialdian, hitz eta pitz. Badakit gora-beherak izan zituela Areilzak Renon, ikurrina zela eta ez. Egun, berriz, Ruperez da lan berean Washingtonen, eta jo eta ke jardun du euskaldunen alde AEBetan, Boisen batik bat, egiten eta esaten den guztiaren kontra. Halaxe egin zuen Boisen onartu zuten Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldeko mozio edo dena delako hura izan zenean orain bi urte, eta antzeko egin du oraintsu, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren kontra Idahoko prentsan ezer ageri izan denean. Amorraturik jardun zuen Areilzak, eta amorraturik Ruperezek. Areilzak ere izango du tartetxoa nire lanean. Aurretik epaile espainolek nire lana ere bahitzen ez badute behintzat. Ez da giro eta!



ARANTZA LOPEZ MARUGAN

emakumeen mendiko historia xede

Querida, esto es el Everest

Emakumeek mendeetan zehar mendian egin duten historia zainduz eta ezagutzera eman nahiaz Arantza Lopez Marugan mendizale, irakasle eta idazle gasteiztarrek "Querida, esto es el Everest" liburua argitaratu berri du. "Aspertuta nengoen betikoen istorioak entzuteaz, Mallory Everestean, Herzog Annapurnan... Liburu honek historia beste ikuspegi batetik estalgabetzen du, hala nola, emakumeena".

- Zure bigarren liburua den honetan emakumea dugu mendiarekin batera protagonista, zure lehendabiziko liburuko ezaugarri berdinak, esan dezakegu. Zer da zure azken lan honetan kontatzen duzuna?

Bigarren liburu honetan Himalayako mendien ikuskapena kontatzen da, hori bai, hainbat emakume alpinista eta esploratzaileen ikuspuntutik. Azken finean egin dudana da mendiei buruz kontatu dizkiguten betiko istorioak idaztea baina beste ikuspegi batetik; izan ere, emakumeek egoera hauetan beste gauza batzuei erreparatzen diete, zeinak gizonen ez dituzten nabarmetzen. Nire ustetan gizonen metroez eta motxilan daramatzaten kiloez arduratzen dira eta emakumeak, aldiz, bidaiaren barruko bizipenekin arduratzen dira gehiago.

- Zerk bultzatu zaitu emakume hauen bizitzaz idaztera?

"Cuerdas Rebeldes" liburua kaleratu nuenean oihartzun handia izan zuen bai merkatuan bai irakurleen aldetik, gutxitan hitz egin baita alpinismoaren historiaren emakumeen ikuspuntutik. Beraz, pentsatu nuen oraindik kontatu gabe zegoen historia bat egotekotan Himalayarena zela, mendien lehenengo mailakoa den tontorrarena, alegia. Horra hoberenak besterik ez doaz, eta batzuk ez dira bueltatzen, beraz, gai egokia iruditu zitzaidan.

- Zergatik hautatu dituzu emakume hauek? Zertan oinarritu zara hautaketa egiteko orduan?

Liburuan Himalayara eginiko zortzi irteera zehaztapen osoz kontatzen dira; batzuek, Nina Mazuchelli, Fanny Workman edo Alexandra David Neel-en kasu, XIX. eta XX. mendeko lehenengo bidaiarien espiritu aintzindaria dakargite. Nepal, India, eta Tibet oraindik toki birjinak ziren eta euren abenturak ikuskapen hutsa dira.

Denboraren poderioz, alpinismoaren kirola iristen da eta AEBetan eta Europan eskalatzen duten emakumeak Himalayara gerturatzen dira, 8.000 metroko

altuerako mendietara alegia. Hor Wanda Rutckiewicz alpinista dugu, 14 zortzimilakoak egitea bilatzen zuena, Chantal Mauduit frantsesa edo Julie Tullis britaniarra, azken hau Kurt Diemberger ospetsuaren bikotea eta aita euskalduna zuena. Liburuan beste bi pasarte ere badaude, Nanda Devi Unsoelden heriotz misterioa Indiako Himalayan eta Cherie Bremer-ena. Azken neska honek, australiarra, bere mutil laguna 7.500 metroko altuerara lurperatu eta Kangchenjunga mendi beldurgarritik jaitsi behar izan zuen bakarrik.

- Zu, Arantza, mendizalea zara, zure liburuko protagonisteetatik zeinekin identifikatzen zara gehien? Horrela ez balitz, zein da behintzat gehien gustatu zaizuna eta zergatik?

Nire burua ezin pareka dezaket inorekin. Izan ere, mugak apurtu zituzten emakume bikain hauek guztiek, euren garaiko arauak hautsi zituztenak. Alexandra David Neel hautatzen dut naiz, bidaiatzeko modurik onena tokian tokiko ohiturak ikastea zela erakutsi baitzion munduari (berak Lhasako hiri debekatura heltzeko tibetanarena egin zuen). Kirol lorpenengatik Wanda Rutckiewicz hautatzen dut eta pertsona bezala, Julie Tullis, zeinak 40 urterekin eta bi seme izanda bizitza berri bati ekitea erabaki zuen munduko mendi altuenetan. K2-an hiltzearen aurreko bi orduko istorioa hunkigarria da; behintzat jendeak esaten dit ezin diotela negarrari eutsi.

- Hirugarren liburu bat egongo da? Noizko eta zertaz idatziko duzu?

Orain arte historian oinarrituriko bi liburu kaleratu ditut, gustatzen zaidan generoa da eta etorkizunean honekin jarraituko dut. Baina orain daukadan denbora guztia idazten ari naizen eleberri berri batek eramaten du. Himalayara bidaiatu nahi duten gasteiztar lagun talde baten abenturak kontatzen ditu azken liburu honek. Arazoa, berriz, dirua ez daukatela eta hortaz hainbat harriabar biziko dituzte. Telebistako dokumentalen glamourretik urrun, jende arruntaren mendi irteerak oztopo lasterketa bat dira: familia, behar duzun dirua, lana, etab. Uste dut askok bat egingo dutela istorio honekin.



Lore exotikoak, bertakoak, urezkoak, delikatuak, handiak, txikiak, zuhaitzak, zuhaixkak... Ia mota guztietako landareak bildu dituzte Tresponden (Iruña Oka) dagoen Santa Katalinako lorategi botanikoan. Loreak maite dituztenek badute non gozatu hemendik aurrera.

Artoa bezalako landarea aurki daiteke, baina baita banbuzko zuhaitza ere. 40.000 kilometro koadroko gunean mila landare inguru topa daitezke.

Trespondeko Santa Katalina monasterioaren aurrien inguruan lorategi botaniko eder bat egin da Iruña Okako Udalaren ekimenez, eta langabezia zeuden hainbat pertsonen lan neketsuari esker.

LORATEGI BOTANIKOA BISITATZEKO ORDUTEGIAK

Asteartetik ostiralera:
10:00etatik 15:00etara.

Larunbatetan:
10:30etatik 14:30etara
eta 16:00etatik 18:00etara.

Igande eta jai egunak:
10:30etatik 14:30etara.



Eduardo Alvarez de Arkaia, koordinatzailea

SANTA KATALINAKO LORATEGI BOTANIKOA LANDARE EDERRENEK PARADISUA

Eduardo Alvarez de Arkaia ekimenaren koordinatzaileak aspalditik zuen halako proiektu bat egiteko gogo, lorategi kontuetan aditua baita. Trespondeko ibilbide berdea egin zutela aprobetxatu, eta ametsa egia bihurtzeko parada izan du. "Hasiera batean erokeria bat zirudien, baina Manuel Rivas alkateari esker aurrera ateratzea lortu dugu", diosku. Lana "gogorra" izan da, kontuan

hartuta gainera eskulan asko behar zela aurrien inguruko zonaldea atontzeko. Horretarako, INEMen bitartez tailer bat osatu zen lorategia egiteko. Gehienak emakumeak izan ziren, inguruan bizi ziren 25 urtetik gorako langabetuak, baina lorategi kontuetan ezer gutxi zekitenak.

Haatik, guztien ahalegin eta izerdiarekin emaitza paregabea izan da. "Bertako natura errespetatzen saiatu gara,

ez ditugu azpiegitura handiak egin nahi izan, lorategia aurrietan integratzen ahalegindu gara...”, azaltzen digu Alvarez de Arkaiak. Lana kontu handiz egitearen isla da, esaterako, monasterioko hainbat murru berritu egin dituztela eta bertako goroldio eta iratzearekin apaindu.

Hiru gune, hamaika landare

Santa Katalinako lorategian murgilduz gero, hiru gune nahiko bereiztuak antzematen direla azaldu digu Alvarez de Arkaiak. Zonalde bat ‘egutera’ izenez ezagutzen da, bertan eguzkiak gehiago jotzen duelako. Bertan, mediterraneoko landareak jarri dituzte, alegia, exotikoenak. Hor daude, besteak beste, kamelia japoniarra (tea egiteko erabili ohi dena), Frantziako zuhaitz-iratzak, Himalayatik ekarritako *trachicarpus fortunei* delakoa (tenperatura bajeetara ohituta dagoena), 35 motatako kaktusak (gehienak Argentinan erositakoak), mesena edo Hegoafrikako lore horia, Ekialde Hurbiletik ekarritako pistatxondoak... Eta mediterraneoko zuhaitzak ere ez dira falta: artelatzak, algarroboak, olibondoak eta landare aromatikoak.

Beste gune batean, bertan zeuden zuhaitzekin batera (sagarrondoak, gereziõdoak, pikondoak eta erromeroak), zonalde atlantikoko bestelako espezieak ere ikus daitezke. Guztiak hezetasuna behar duten landareak dira (pagoak, haritzak eta arteak), eta elkarrekin baso baten tankera hartu dute.

Azkenik, hirugarren gunean, landare bitxiagoak topa daitezke. Lorategiaren erdigunean putzu berri bat egin dute, eta urezko landareak jarri: nenufreak eta bide ertzetan jaiotzen diren beste batzuk aurki daitezke. Monasterioaren aurriak gune honetan daudela aprobetxatu nahi izan dute, eta bidexka bat egin dute, eraikin zaharraren barruan hazi diren lore delikatuak ikus daitezen: ameliak eta hortentsiak, adibidez. Baina ez hori bakarrik, murrutan mendeetan egon diren huntz handiak berreskuratu egin dituzte, zonaldeari edertasun eta erromantizismo ukitu bat emanez.

“Etxeko landareak dira”

Horrenbesteko landare eta zuhaitzak ikusita, norbaitek pentsa dezake horietako asko erabat



ezezagunak direla hemengo herritarra-
rentzat. Ezta gutxiago ere. Lorategiko
koordinatzaileak argitzen digu: “Landare
exotikoak direla esaten da, kanpotik
ekarritakoak direlako, baina horietako
askok mendeak daramatzate hemen eta
gehienok ezagutzen ditugu, baita etxean
izan ere”.

Kanpokoak izan ala bertakoak, kontua
da azkenean “lorategi natural” bat sortu
dutela, hala dio koordinatzaileak, bederen.
Zaintza ere ez da beste munduko gauza,
eta helburua da bi urtetan gutxi gora
behera landareak bere kabuz haztea, eta
aparteko mantenimendurik behar ez
izatea.

Klimak ere eginkizun horretan
laguntzen duela diosku Alvarez de
Arkaiak: “Landareak inguruko
ezaugarrietara moldatzen saiatu gara.
Eguzkia behar dutenak leku batean, ur
gutxi behar dutenak harkaitz baten
azpialdean,...”.

Inguru erakargarri eta polit bat sortzeaz
gainera, bestelako helburu nagusi bat ere
badu Santa Katalinako lorategi botanikoa:
“Helburu hezigarria izatea nahi dugu,

zerbait bizia izan behar du, ez museo
baterako lorategia”. Landareengandik
oraindik ikasteke asko dugula iritzi dio
Alvarez de Arkaiak, eta beraz, proiektu
honekin mundu hori hobeki ezagutzea
lortu nahi da. Landareetatik zer ikasia
ere badugu eta.



publizitatea



adaka *M*
madinabeitia

**Floridako
altxorra !
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege alea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



eguzkitarako
nobedade

eguzkitarako nobedade
guztia MendiaOptikan,
... zatoz ikustera

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Pza. Virgen Blanca
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

 Informa zaituz gure Kreditu Txartelen abantailez



testua: edurne begiristain

argazkia: edorta sanz

ALICJA OKONIEWSKA:

POLONIAR EUSKALDUNA GASTEIZEN!



Alicja 24 urteko neska poloniarra da, jaiotzez Bydgoszez-ekoa eta Torunen bizi da. Harritzekoa bada ere, Alicjak ederki asko hitz egiten du euskaraz, Poloniako Unibertsitatean ikasi baitu. Euskal Herrira beka baten bidez etorri zen duela hiru bat urte (Zornotzara eta Bilbora) eta orain Gasteizen dago, Euskal Filologia ikasketak egiten. Hizkuntzak ikastea izugarri gustatzen zaio (poloniera, ingelesa, euskara, gaztelera eta frantsesa dakizki), baina bestelako hobbyak ere baditu: bidaiatzea (Txina, Mongolia eta ia Europa dena ezagutzen ditu), antzerkia, zeharkako xirula jotzea... Neska irekia eta alaia da, eta gustura asko dago Euskal Herrian, euskaldunok oso jatorrak garela uste baitu.

- Nola ahoskatu behar dugu zure izena? 'Alitzia', euskaraz esaten den bezala.
- Ados. Alitzia, zer eskatzen diozu bizitzari? (Isilunea...) Jende onen artean egotea eta kulturak ezagutzea. Ez dut imajinatzeko kulturarik bere hizkuntza ezagutu barik.
- Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Harremanik ez izateak.
- Duzun biziorik handiena? Dantzatzea.
- Euskal dantzak ere bai...? Bai! Pasa den lauhilekoan euskal dantza ikastaro bat egin nuen.
- GEU aldizkaria eta elkartearen berririk bai? Ez, ez ditut ezagutzen.
- Egunkari bat? Denetarik

- irakurtzea gustatzen zait, baina aspaldion Euskaldunon Egunkaria irakurtzen nuen.
- Telebista saio bat? Ez dut telebistarik ikusten.
- Filmik gustukoena? Hitckocen La ventana indiscreta.
- Jakirik gustukoena? Txokolatezko tarta.
- Libururik? Roy Broadbury-ren 450 gradu Fahrenheit eta Alitzia Liluren Herrian.
- Oporrak non eta zertarako? Bidaiatzeko. Txinara joan nahiko nuke, baina orain ez da garairik hoberena. Bestalde, Txileko Tierra de Fuego ere ezagutu nahiko nuke.
- Gasteizek duen onena? Argitasuna. Hemen eguzkia oso gogorra da, Poloniarekin alderatuta bederen.
- Eta txarrena? Inoiz ez dut ezer txarrik

- pentsatzen.
- Amets bat? Asko ditut, egunaren arabera aldatzen dira. Zulora ez joatea, agian.
- Eta amesgaiztorik? Azterketa bat ez gainditzea edo ezbehar bat gertatzea...
- Zure gorputzeko atalik politena? Begiak.
- Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Jendeak ezetz dio, baina nik etxean, unibertsitatean eta tabernan euskaraz egiten dut...
- Bukatzeko, Geu aldizkariari poloniarrez zerbait esango zenioke? *Pla GEU i euskery zycia w krainie czarów.*
- ??? Geu eta euskararentzat, liluraren munduan bizitzea.

GAIXO MENTALAK:

MAIZ BAKARDADEA DA ARAZOA

Asafes-ek (Eri mentalen eta senideen Arabako elkarteak) boluntarioak lortzeko kanpaina hasi du. Gaixoez bizitza normalago egiten laguntzen dute boluntarioek, askotan beren arazorik handiena bakardadea baita, eta ez da arazo txikia; medikuek diotenez, pertsonen % 4 arazo mentalak ditu.

Ana Belen Otero, boluntarioen kanpainaren koordinatzaileak azaldu duenez, estatistikek diotenaren arabera, horrelako lanetan sartzen den pertsona mota 25 urteko emakume ikaslea da. "Baina gure kasuan ez da guztiz egia", zehaztu du Ana Belenek. Asafes-ek dagoeneko duen boluntario taldeak 20 eta 75 urte bitarteko gizon-emakumeak ditu, ikasleak, langabetuak,

langileak eta familia bizitza arrunta duten pertsonak dira.

Asafes-era joz zer bilatzen duten galdetuta, zer aurkitzen duten erantzun du Oterok: "Beraiek esaten dutenez laguntzeko asmoz etortzen dira eta ematen dutena baino askoz ere gehiago jasotzen dutela konturatzen dira, oso harreman aberasgarriak sortzen baitira".

Estatistiketara jotzen du berriro Ana Belenek aberasgarria



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

ERROTA HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!
Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"
Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

¿CUÁNTO CUESTA
LA ALEGRÍA?

berria berri

osasun mentala



denaren froga emateko. "Boluntarioek bi urte ematen dute batezbeste hautatu lanetan, antza, eta gurean zazpi urte daramatenak ere badaude", esan du.

Boluntarioentzat esperientzia aberasgarria bada, gaixoentzat are garrantzitsuagoa. Maiz bakardadea izan ohi da

horien arazo handiena, "gaixoen artean denetarik dago, etxean bizi direnak, beraiek bezalako arazoak dituztenekin pisuetan daudenak, zaharrak, gazteak,...". Gizarte honetan buruko gaixotasunak dituzten pertsonen beldurra zaiela ematen du, tabu asko daude horren inguruan. "Askotan ez dakigu zeri buruz hitz egiten dugun, psikopata eta psikotikoak nahasten ditugu, eta gainera halako gaixo batek zerbait egiten duenean komunikabideetan izugarrizko oihartzuna ematen zaio eta beldurrak sortzen dira", azaldu du Ana Belenek, duela gutxi Espainiako ospitale batean gaixorik zegoen mediku batek bi pertsona hil zituenean polemika latza sortu zela gogoratuz. Asafes duela zazpi urte ari da boluntarioekin lan egiten, eta "sekulan ez da ezer gertatu, ezer".

Egunerokotasuna

Boluntarioak dira gaixoen normaltasunarekin duten lotura. Izan ere, boluntarioei ez zaie ezer berezirik eskatzen,

gaixoei lagun edo familiakoekin egiten dena egiten baita: paseotxo bat eman, kafe bat hartu, erosketak egin, medikuarenera joan,...

Asafes-ek ere ez die baldintza handiegirik jartzen, "asteen ordu pare bat ematea baino ez dugu eskatzen, baina malgutasun handiz gainera; esaterako, ikasleek ekainean ezin badute ez da ezer gertatzen, oporretan ordu gehiago sartuko dituzte-eta". Edonola ere boluntarioen jarduerari jarraipen bat egiten zaio, pertsonen sentimenduei buruz ari garela, normala denez.

Boluntarioek bi motatako lanak egiten dituzte gaixoei, bakarkakoak eta taldekoak. Bi kasuetan zer egiten den libre da, nahi dutena eta gustuen arabera: "Interneten ibiltzea gustatzen zaie gaixo batzuei, beste batzuek kirola egitea maite dute edo besterik gabe kafea hartu eta norbaitekin hitz egin baino ez dute nahi". Edonola ere, batzuetan ez da bakarrik zerbait entretenigarria egitea, "eta medikuarenera ere laguntzen zaie, beraiek eskatuta". Taldeka egiten diren ekintzak larunbatetan izaten dira, 15 gaixo eta hiru boluntario biltzen direlarik zerbait egiteko.

Horretaz gain, Asafes-ek berak hainbat ekitaldi egiten ditu, "egun sukaldaritza eta argazkilaritza ikastaroak daude, eta urtero denok elkartzeko eta elkar ezagutzeko ibilaldiren bat, eta Inauteri eta Gabonetan ere jaiak egiten ditugu".

Hau guztia egiteko laguntza behar dute Asafes-ek eta gaixo mentalek. Hori da boluntarioak eskuratzeko kanpaina egitearen arrazoia. "Baina horretarako bitarteko gutxi ditugunez, gauza gutxi egin ditzakegu". Horregatik, nahiz eta kartelik edo iragarkirik ikusi ez, interesa duenak, Asafes-era dei dezake (945 28 86 48).



DEBAKO ARTE ESKOLA

MATRIKULA ZABALIK

2003/2004 IKASTURTEA :
(urritik ekainera)

- GRABATU KALKOGRAFIKOA
- BRONTZE GALDAKETA
- ZERAMIKA
- HARLANKETA ETA ZURLANKETA

2003ko UDAKO IKASTAROAK (uztailean):

- KALKOGRAFIAZKO GRABATUAREN HASTAPENAK
- ZERAMIKAREN HASTAPENAK
- BRONTZE GALDAKETA ARTISTIKOA
- MARRAZKETA ETA PINTURA TAILERRA
- EGURRA LANTZEKO TAILER IREKIA

Tel.: 943 191804
e-posta: debararte@euskalnet.net
www.euskalnet.net/debararte

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Debako Udala

ROBERTO GONZALEZ DE VIÑASPRE:

azterketaren koordinatzailea

Trebiñu eta Argantzongo Udalek eskatuta, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeak Trebiñuko herri izendegia argitaratu du aurten, ikerketa sakon eta luzearen ondotik. Azterketa honen koordinazioa Roberto Gonzalez de Viñaspre filologo eta ikertzaileak eraman du. Berak, "historikotzat" jo du lana.

- Zer da Trebiñuko herri-izendegia?

Izenak dioen moduan, Trebiñuko herrien izenak biltzen dituen argitalpena da. Euskaltzaindiaren aldizkari ofizialaren separata bat da, gehigarri bat. Trebiñuko herri guztien izenak biltzen ditu; orora 49 herriren izenak agertzen zaizkigu euskaraz normalizatuta. Eta herri izenekin batera bestelako izenak ere jasotzen ditu: baseliza ezezagun batzuenak, murturi izenak (noizbait historian zehar herri izandako tokiak eta gaur egun hutsik daudenak), kuadrillak eta partzuergoak.

- Nola sortu zen lan hau egiteko ideia?

Trebiñuko zenbait euskaldunek bagenekien hutsune bat zegoela, Trebiñuren inguruan ezer ez baitzegoen Euskaltzaindia beste toki batzuetan halako lanak egiten ari zen bitartean. Horrela ba, Trebiñu eta Argantzongo Udalek erabaki zuten Euskaltzaindiari eskaria egitea, lan hori aurrera atera zezan.

- Lana zaila eta neketsua izan da, ezta?

Galdera horri askoz hobeto erantzungo liokete Euskaltzaindiakoek, baina bai, lan itzela izan da, kontuan hartuta dokumentazio gehiena hautsaren pean zegoela. Zorionez, ordea, Gerardo Lopez de Gereñuk, Jose Antonio Gonzalez Salazarrek eta beste historialari askok Arabaz idatzi zutenean Trebiñu ere integratu zuten lan esparruan eta hori oso baliagarria izan zaigu.

- Oztoporik aurkitu duzue dokumentazio

lana egiterakoan, batik bat Gaztela-Leongo agintarien aldetik?

Ez, oro har ez. Hori bai, ikerketa lan hau ez da inondik inora Gaztela-Leongo agintarien gustuko izan. Udalek Euskaltzaindiari lana eskatzea erabaki zutenean, Gaztela-Leonek erabaki horren kontra helegitea jarri zuen, eta baita euskararen aldeko bestelako kontu batzuen aurka ere. Ondorioz, hasiera batean epaileak lan hau behin-behineko bertan behera uztea erabaki zuen. Epaia, ordea, esan zuen Gaztela-Leonek ez zuela eskumenik hizkuntza kontuetan, hartara, bertan behera uzte hori altxatu behar izan zuten.

- Halako ikerketa bat Trebiñu betidanik euskalduna izan dela erakusteko baliagarria dela uste duzu?

Jakina, hori da txanponaren beste aldea. Horrek ez du esan nahi halako lanek bestelako helburuekin egiten ez ditugunik. Baina egia da aldi berean honek are eta argudio gehiago ematen dizkigula frogatzeko Trebiñuk lokarri estuak dauzkala Arabarekin, eta beraz, Euskal Herriarekin. Gainera, ez da ahaztu

"Lan honek erakusten du Trebiñuk lokarri estuak dituela Arabarekin"



ROBERTO GONZALEZ DE VIÑASPRE

Bilbon jaioagatik, trebiñuarra du bere burua, bertan bizi baita aspalditik. 42 urte ditu eta euskal filologoa da. Toponimia da bere ikerketa mundua, berak dioen moduan gai horretan "zaletua" da. Egun, Trebiñuko toponimia berria ikertzen dihardu buru-belarri. Lan handia egin du alor horretan, eta hemendik gutxira Marauriko euskal toponimiari buruzko lana argitaratuko du. Bestelako lanak ere baditu kalean, ezagunetarikoa, akaso, *Trebiño: claves para un contencioso inacabado* liburua da (Txalaparta, 1999). Bertako ikerketa soziolinguistikoaren koordinatzailea ere izan da.

"ikerketa lan hau ez da inondik inora Gaztela-Leongo agintarien gustoko izan"

TREBIÑUKO HERRIAK
EUSKARAZ NOLA?

Euskaltzaindiak atera berri duen herri izendegian topatuko dituzuen herrietako hainbat izen bildu ditugu ondoren, bai eta Gonzalez de Viñasprek emandako azalpenak ere:


- **Lauria** (Izen ofiziala: Lauria): "Jatorriz lau herrik osatzen zuten uria edo hiria esan nahi du".
- **Busturia** (Izen ofiziala: Busturia): "Bost herrik osatzen zuten partzuergoa (Urarte, Granado, Lañu, Albaita eta Paritza herriek)".
- **Billa** (Izen ofiziala: Villanueva de Tobera): "Euskaldunek herri hari Billa deitzen ziotelako hartu da izen hori".
- **Argantzón** (Izen ofiziala: La Puebla de Arganzón): "Azken urteotan Argantzón entzun da, baina dokumentazioan Argantzónen lekukotasunik ez dute aurkitu inon. Beti "o" bokalarekin agertzen da. Madrilen artxibo batean kronika arabiar bat dago, eta IX. mendeko bataila baten lekua agertzen da, *en las conchas de Arganzón* dioena.

behar 1998an, bi Udalek banaketa eskatu zutenean, Gaztela-Leonek txosten bat prestatu zuela korrika eta presaka, eta besteak beste, esaten zuen Trebiñu ez zela Araba, eta frogagisa hizkuntza jartzen zuten. Haiek zioten Trebiñun hitz egin den hizkuntza bakarria gaztelera izan dela, baita gaztelera Trebiñun bertan jaio zela ere. Ausardia behar da gero hori esateko!

- **Onomastika Batzordearen asmoa da gai honen inguruko beste argitalpen bat ateratzea. Zer kontu diezagukezu?**

Trebiñuko Udalek eskaria egin diogu Euskaltzaindiari lan hau garatu dezan. Alegia, lan honen muina herritarrei helarazteko lana egin dezan: jendeak jakin dezan zein izan den historikoki herri horren bilakaera, izen guztien nondik norakoak... Gure asmoa da era didaktikoan azaltzea zein den euskarazko izena eta zergatik finkatu den izen hori, eta aldi berean modu arinean ilustratzea zein izan den izen horren garapena historian zehar... Lan horretan buru-belarri hasita dago Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordea, eta asmoa litzateke aurtan argitaratzea.





Errioxara iritsiko da berriro
euskara eta ikastolen aldeko
aldarrikapena. Oionen ospatuko
da ekainaren 8an Araba
Euskaraz, San Bizente ikastolaren 25.

urteurrena betetzen den
urtean. Beti
bezala musika,
bertsolariak,
jolasak eta adin
guztietako
euskaltzaleentzako
ikuskizunak
egongo dira.

Asier Otamendi, edizio
honetako arduraduna

Esperientziak zerbaitetarako balio duenez, "oso ibilaldi itzaltsua" prestatu dela azpimarratu du behin eta berriro Asier Otamendi, Araba Euskarazeko koordinatzaileak. Izan ere, gutxi izango dira ikastolen jaia Oionen izan zen azken aldian joandakoak eta egin zuen bero sargoritsu latza gogoratzen ez dutenik.

Bero handia egin dezakeela kontuan hartu dute antolatzaileek eta hiru gune nagusiak itzalpean jarri. Batetik bestera joateko mahastiz inguratutako 5,5 kilometroko bidean eguzkiak jo dezake, baina gero non ezkutatu ere badagoela hitz eman du Otamendik.

MAHASTI ARTEKO ARABA EUSKARAZ HILAREN 8an DENOK OIONERA!

Trujala eta ardandegia

Lehenengo gunea herriaren erdialdean dago, ikastolan. Bigarrena, San Justo-n, eta hirugarrena, Comy Trujalaren inguruan. Aurten ezin esan halako gunea horrelako jendearentzat dela, "ez delako nahi izan oso gune berezituak sortzea; bigarrena rockeroagoa da, baina beste biak guztientzako dira".

Oiongo festak ikastolen aldeko jai guztien ezaugarriak ditu: bertsoak,

konzertuak, haurrentzako jolasak,... baina bereizgarri bat ere badu, lurrari lotuta dagoela eta horrek protagonismo berezia duela. Horregatik, arabar Errioxako ardoek protagonismoa izango dute, eta dastatze tailerra egingo da. Era berean, ardandegi bat eta herriko trujala bisitatu ahal izango dira. Eta salgai dauden gaien artean ere izango dugu ardoa, pin, kamiseta, praka, motxila eta abarrekin batera.

Beti bezala materiala salgai dago, Arabako ikastolen jaiak bi helburu dituelako, kulturala eta ekonomikoa. Kulturala, euskal kultura bultzatzeko helburua dagoelako, eta ez bakarrik ekainaren 8an, aurretik ere kontzertuak, antzerkia, dantzaldiak eta ardo-dastatze bat egin baitira.

Baina xede ekonomikoa ezin ahaztu, San Bizente ikastolak azpiegiturak berritu nahi, etxe berria egiteak sortu zituen zorrak kitatu eta, batez ere, garraio zerbitzua indartu nahi duelako. Logroñotik autobus bete haur joa ohi da Oiongo ikastolara egunero, eta datorren urtean bi izango dira. Haur horiek, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpotik datozenek, ez dute garraiorako inolako dirulaguntzarik eta oso garesti ateratzen zaio ikastolari doanekoa den zerbitzu hori ematea.

Antolatzaileek 60.000 lagun inguru espero dituzte, "Errioxan, inguru erdaldun batean, 25 urtez lanean aritu direnek guztion babesa merezi dutelako".

Kanta

Kanta Musikene-n egin da, musikagile taldeak Kepa Junkera gidari zuela. Letra Iker Zubeldia bertsolariarena da, eta Maixa Lizarribarrek eta Iñaki-Betagarrik jarri dute ahotsa. Koroak San Bizente ikastolako haurrenak dira. Kepa Junkera, Maixa Lizarribar eta Iñaki Ortiz de Villalva ez dira izan proiektuan parte hartzeko prest egondako bakarrak eta hainbat eta hainbat kolaborazio gehiago izan dira: Ibon Koteron, Oreka Tx-ekoak,...

Logoa

"Oro bil borobil" da leloa. "Guztion lana, uzta, jaso eta proiektuak gauzatu" esan nahi du.

Leloaren azpian lurrean ondo itsatsitako zuhaitz bat. Enborra ardo kolorekoa da eta adarrek "25" zenbakia osatzen dute, San Bizente ikastolaren zilarrezko ezteiak gogoratuz. Normala den moduan, Ebro ibaia ere badago logoan, baita mahastiei jatekoa ematen dien lur gorrixka ere.

Aholkuak

Eguzkia egiten badu, kontuz! Crema eraman. Ez zaitez kotxez joan. Gasteizen Bagarek antolatu ditu autobusak. Erosoago eta seguruago iritsiko zara. Ingurua zaindu, mahastiak jende askorentzako bizimodua dira-eta.

Egitaraua

Ikusi aldizkariarekin batera banatutako triptikoa.

ARABA EUSKARAZ-03 KANTA:

"ORO BIL, BOROBIL"



GURE ARBASO ZAHARREN
HIZKUNTZA JATORRA,
NOLA ORDAINDU DAITEKE
HAIEKIKO ZORRA
GURETZAT ZER DEN EUSKERA
ERAKUSTEKO AUKERA,
GUK ZAINDU BEHARKO DUGU
GEUREA DEN ALTXORRA.

ZAINETAN DARABILKIGU
EUSKALDUN ODOLA
MINTZOA EZIN DAITEKE
AHAZTU INOLA,
EGIN BEHARKO DA LANA
HERRIAK BERE ESANA,
ARNASBERRITU DADIN OIONGO
IKASTOLA.

**IKASTOLEN FESTARI
EMAN BULTZADA,
HOGEITA BOST URTETAN
EGINDAKO LANAREN ISLADA,
EUSKERA ARABARRON
EZPAINETAN DABIL,
NESKATO ETA MUTIL
ORO BIL BOROBIL**

OIONEN FALTA EZ DADIN
EUSKERAZKO HITZIK,
EZ GAITUZTE LAGUNDUKO
GEUK MINTZATU EZIK,
BADATÖRKIGU IRAULTZA
MAITATZEN DUGUN HIZKUNTZA,
EZ DA INPOSATU NAHI, BERRESKURATU BAIZIK.

GAZTEOK ITXAROPENTSU
GAUDE ZORIONEZ,
ETORKIZUNA ERAIKIZ
TXUKUN HITZ EGINEZ,
SAN MILLAN-EKO TESTUA
EZ AL DA PROBA JUXTUA?
HAIEK EGITEN ZUTEN ETA GUK ZERGATIK EZ.
IZIOQUI DUGU GUEC AJUTU EZ DUGU.

**AÜRRERA DOA
OINATZEZ OINATZ,
GURE ARABA EUSKARAZ.**



DATORREN IKASTURTEAN SUKALDARITZA ZIKLOA EUSKARAZ, GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLAN

Datorren kurtisorako apustu gogorra egin dugu eta goikoez gain sukaldaritza zikloa, D ereduan, zabalduko dugu.

Baina nortzuk gara?

Gure aurkezpena egiten hasteko esan beharko dugu ikastetxe publiko bat garela, beraz doakoak. 1988an ekin genion ostalaritza arloko profesionalak prestatzeari; gure ikasgeletatik jadanik 600 profesional baino gehiago atera dira.

Ikastetxea pertsonen aldetik ez da oso handia: 20 irakasle, 105 ikasle, 6 garbitzaile, administraria eta mendeko bat. Instalazioen aldetik gauzak aldatzen dira, oso handiak eta ondo hornituta baitaude; ditugun tailerrak hauexek dira:

- Sukaldea bere entremetier, saltsero eta hotz gelarekin.
- Gozotegia
- Okindegia
- Hiru jantoki (karta, menu eta buffet)
- Kafetegia

Instalazio hauei esker gure ikasleek praktika errealak egiten dituzte etorri ohi diren bezeroei zerbitzatzeko. Titulua eskuratu ahal izateko prestakuntzaren azken hiru hilekoan lan-praktikak egin behar dituzte jatetxe, hotel, gozotegi edo okindegietan, ateratzen ari diren tituluaren arabera. Gurekin kolaboratzen duten enpresak onak eta ospe handikoak dira.

Irakaskuntzaren kalitatearen aldeko apustua betikoa izan da gure ikastetxean, eta esfortzu hori saritua izan da: alde batetik, AENOREk 2000 urtean 'UNE-EN ISO 9002:1994' ziurtagiria eman zigun eta, beste batetik, Eusko Jaurlaritzako

Hezkuntza Sailak sortutako Euskal Heziketako Ikastetxe Integralen Sarean parte hartzen dugu; Ostalaritza arloan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko bakarra.

Gure ikasle eta ostalaritzako enpresen beharrei erantzuteko lan poltsa gestionatzen dugu. Gaur egun sektoreak behar duen profesional kopurua oso handia da eta ezin diezaiekegu eskaera guztiei erantzun.

EGAILANek (Prestakuntza eta enplegua sustatzeko sozietate publikoa) Lanbide heziketako ikasketak amaitzen dituzten ikasleen analisia egiten du urtez urte. Azkeneko txostenean agertzen diren datuak oso aipagarriak eta baikorrak dira, bai ostalaritza arloari bai gure ikastetxeari dagokionez. Beste datuen artean hauxe dio txostenak:

- Sukaldaritza zikloaren batezbesteko enplegu tasa Euskal Erkidegoan % 83 da; gure ikastetxean % 88. Beraz, gure ikastetxean sukaldari titulua lortu duten 100 ikasletatik 88 lanean ari dira.
- Gozogintza eta Okintza batezbesteko enplegu tasa Euskal Erkidegoan % 95 da; gure ikastetxean % 100.
- Jatetxe Arloan batezbesteko enplegu tasa Euskal Erkidegoan % 85 da; gure ikastetxean % 89.

Hezkuntza arautuaz aparte langileentzako etengabeko prestakuntza egiten dugu HOBETUZ fundazioa eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzaz, eta langabetuentzako ikastaroak Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udalaren laguntzaz.

Orain arte euskaraz ikasi baduzu eta sukaldea gustatzen bazaizu, egin ezazu **matrikula Ekainaren 2tik Ekainaren 11ra**. Ezagutuko gaituzu eta ez dizugu hutsik egingo.

Informazio gehiago behar baduzu ez izan zalantzarik eta bisita ezazu

www.hosteleria.gamarra.net web-orria edo deitu **945258025** telefonora.

Gamarrako Ostalaritza Eskolaren orain arteko zikloen eskaintza beti A ereduan izan da, behean aipatzen dena:

- Erdi mailako zikloak (sartzeko gutxienez DBH eduki behar da):
- Gozogintza - Okintza, 1.400 ordukoa.
- Sukaldaritza, 2000 ordukoa.
- Goi Mailako zikloa (LOGSE batxilergoa, BBB edo bigarren gradu LH izatea beharrezkoa da):
- Jatetxe arloa, 2.000 ordukoa
- Zeregin Ikaskuntza, sukaldari laguntzaile espezialitatea.

UEUK INOIZ BAINO AUKERA TRINKO ETA KALITATEZKOENA PROPOSATZEN DU UDAKO IKASTAROETAN

Iruñean aurkeztu zuen maiatzaren bukaeran Udako Euskal Unibertsitateak udako ikastaroen aurtengo ekitaldia Haize berriak lelopean. Berrikuntza nabariekin datozen ikastaro hauek aukera zabala eta kalitatezkoa eskaintzen dutela azpimarratu zuten antolatzaileek, eta edozeinek topatu dezakeela bere intereseko ikastaro bat. Gainera, udako ikastaro hauek "zerbait gehiago" eskaintzen dutela ere esan dute.

Urtero bezala, eta hutsik egin gabe, UEUK udako ikastaroen eskaintza aurkeztu zuen Iruñean Haize berriak lelopean. Izan ere, aurtengo udako ikastaroak berrikuntza handiekin datoz. Aurkezpen honetan Xabier Isasik, UEUKo zuzendariak; Irati Iciar-ek, UEUKo Udako Ikastaroetako arduradunak; Ritxi Lizartzak, Antzerkigintza ikastaroaren arduradunak eta Aitzpea Leizaolak, Antropologia ikastaroaren arduradunak hartu zuten parte.

Xabier Isasik hartu zuen lehendabizi hitza. UEUKo zuzendariak Udako Ikastaroek birmoldatzeko eta eraberritzeko duten ahalmena azpimarratu zuen: "Dagoeneko, UEU bere XXXI. Udako Ikastaldietara iritsi da. Badatoz etorri udako ikastaldien zirimolak. Eskaintza berria eta eraberritua, hogeita zortzi ikastaro Biarritz eta Iruñean, arin-arin, bizi-bizi. Interes handiko gai berri berriak eta interes handiko ohiko gaiak; UEUK hogeita hamaika urtez jakin izan du garaian garaikoari erantzuten eta aurtun horrela izatea espero dugu. Eginkizun hauetan urteak eman ditugunoi zaila egiten zaigu gure buruari azaltzea nola den posible etengabeko zaharberitzean ibiltzea eta UEU beti gazte izatea. Baina horrela da, UEUn gazte izandakoei gazte direnek txanda hartzen diete urtez urte.

Ilusioz gatzoz 2003. urte honetan; aurreko urteetan baino trinkoago eta orekatsuago. Udako Euskal Unibertsitatearen ekarpenak itxura eraberritua hartzen du urterik urte. UEU urrats berriak ematen ari da; etengabe berritzen ari gara, baina, hori bai, gure ohiko eskaintza ahaztu

gabe. Unibertsitario euskaldunentzako UEUren ikastaroak bereziak dira. Zergatik azaldu behar izango bagenu hiru hitz hauetara ekarriko genuke: diziplinartekotasuna, aniztasuna eta berritasuna.

UEUK beti jakin izan du garaian garaiko unibertsitarioen behar izanei erantzuten. Aurtun tamainan erantzutea itxaron dugu. Urterik urte, alerik ale Euskal Unibertsitatea gero eta gertuago daukagu. Udako ikastaroak gai berriak (eta gustukoak) lantzeko aukera izaten dira, nork bere jakin minak zirikatu edo ase ditzake. Baina haratago, Biarritz eta Iruñeko ikastaroak unibertsitario euskaldunen topalekuak dira. Elkarren berri izateko, proiektu berriak partitzeko eta abian jartzeko, lagunak egiteko, euskal kulturaren egoera zertan den bertatik bertara ikusteko.

Hogeita hamaikagarrenez eta Haize Berriak garamatza, berritzen baino zaharberitzen ari gara. Burutu berri dugun bigarren kongresuan aukera izan dugu Euskal Unibertsitateari buruzko hausnarketa egiteko, eta datozen urteetan urrats garrantzitsuak eman behar ditugu. Euskararen normalkuntzarako Euskal Unibertsitatea beharrezkoa dela uste dugu eta; euskararen bizi iraun bidean teknologia berriak, internetako amaraunean presente izatea eta goi mailako trebakuntza behar-beharrezkoak direla uste baitugu. Alderdi horretatik bideratzen ari gara gure egin ahalak. Eginkizun handiak dira erakundearentzat. UEU indartu behar dugu eta gurekin lan egitera gonbidatu nahi zaitut. Udako ikastaroak aukera polita izan daiteke horretan hasteko".

Irati Iciar-ek, UEUKo Udako Ikastaroen arduradunak hitz egin zuen ondoren, ikastaroek dagozkien xehetasunak azaltzeko: "Ikastaldi honen leloa Haize berriak izatea ez da kasualitate hutsa; UEU aldaketa garaian murgilduta dago eta nolabait etapa berri hau udako ikastaroetan ere islatu nahi genuen. Haize berriak diogu aurkezten ditugun ikastaro guztiak berriak direlako; Haize berriak diogu

Biarritz:
uztailak 07-11

Iruñea:
uztailak 15-19

www.ueu.org
Udako Euskal Unibertsitatea

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

UDAN ERE EUSKARA IKASI

Arana, 30	945 25 24 00
Mardones, 8	945 26 35 40
Peru, 8	945 21 75 08
Mendiko, 15	945 89 23 34
Zapatari, 21	945 30 04 08
Zubiour, 5	94 672 67 22

5 eta 3 orduko ikastaroak.
2 asteko barnetegiak.
Familia barnetegiak.

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fourrier, 23
Inoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Inoa: 13 19 91
01004

Dalve
maketazioa
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net
diseinua



udako ikastaroen irudia aldatu egin dugulako, baina aldaketa hori barrutik eman delako lehenik. Gizartea etengabe aldatzen ari den honetan, ezinbestekoa dugu guk ere aldatzea eta bere beharrianak aztertu eta erantzun ahalik eta egokiena ematea. Jendeak gero eta dinamikoagoak, malguagoak diren produktua nahi ditu, baina era berean, kalitate gorenekoak izatea ere eskatzen du. UEUn ikastaroak ez daude errealitate horretatik at eta hori dela eta, aurtengo ikastaroek ezaugarri horiek bete ditzaten saiatu gara. Arrazoi honengatik berarengatik erabaki genuen ikastaroak hiru astetan burutu beharrean bitan egitea; bat Biarritzen eta bat Iruñean. Bi guneak orekatuz, Iruñeko ikastaroak trinkotu eta Biarritzekoak indartzea lortzen dugu".

Udako ikastaroen arduradunak azaldu zenez, guztira 28 ikastaro antolatu dira aurtengatik; horietatik 12 Biarritzen, 15 Iruñean eta bat Ondarroan. Iciarrek adierazi zuen moduan, gainera, ikastaro guztiak berriak dira, hots, urte batetik bestera ez dira errepikatzen: "gure helburua urtetik urtero gai berriak jorratzea da, orijinalak izatea nahi dugu. Gure eginbeharretako bat egunerokotasunarekin lotuak dauden gaiak eta kalitatezko ikastaroak ematea dela uste dugu, eta aurtengo programak hori arras ongi bermatzen du".

Biarritzi dagokionez, eta aurtengo helburuari jarraikiz, inoiz baino ikastaro gehiago antolatu dira. Hona hemen bertan jorratuko diren hainbat gai: "Bitartean heldu hitzari: XXI. menderako poesiaren bila", Itzulpengintza eta Literatura sailena; "Ekonomia eta ekologia", Ekonomia sailarena; "Galipotak itsasoa baino zerbait gehiago zikintzen duenean"; "Nazioarteko harremanen garapena Irakeko gerra ondoren"; "Mintzoa komunikabideetan", Kazetaritza, Musika eta Hizkuntzalaritza sailena; edota Psikologia sailak antolatu duen ikastaroa: "Amatasunak eta aitatasunak: gurasoa izatea

milurteko berrian". Horretaz gain, Antzerkigintza, Sexologia, Informatika, Zinemagintza eta Soziologia sailek ere ikastaroak antolatu dituzte. Ikastaroen sarrera-hitzaldia uztailaren 7an izango da, goizeko 11etan. Joxerramon Bengoetxea, Europar Komunitateen Justizia Auzitegiko letratuak "Europako Etorkizunari buruzko Biltzarra eta Konstituzioa" izenburuko hitzaldia eskainiko du bertan.

Iruñea. Berrikuntzak

Iruñari dagokionez, berriz, 15 ikastaro antolatu dira Larraona ikastetxean. Bertan ere jakintza-esparru anitzetako ikastaroak antolatu dira. Hala nola, Artea eta Komunikazioa alorrean Musika sailaren "Ordenagailuaren erabilera musika gela" antolatu da; Giza eta Gizarte zientzietan, adibidez, Antropologia sailak "Gerra ondorengo memoria: isiluneak eta hitz (lapurtuak)"; Historia sailak "Notak eta datak elkarrekin dantzan: historia musikaren bidez"; Psikologia sailak "Adimen emozionala"; eta Zuzenbide sailak "Hizkuntza eskubideetan trebakuntza". Azkenik, Zientzien alorrean Fisika sailak "Argazkilaritza, zure esku!" ikastaroa antolatu du, Natur Zientziak sailak "Fruta zaintza Euskal Herrian" eta Informatika sailak "Haririk gabeko sareak". Sarrera hitzaldia (uztailaren 15ean, eguerdiko 12etan) Jaione Apalategi NUPEko Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateko Dekanoak "Jorge Oteiza gogoan UEUn" izeneko hitzaldia emanen du.

Berrikuntzei dagokionez, aurtengoa, Osasun saileko ikastaroa Larraona ikastetxetik kanpo emango da: "Hidroterapia tailerra: uraren erabilpen terapeutikoa", zeina bere ezaugarriengatik Ondarroako Itsas Arrigorri Itsas Ostatuan egingo den. Bestetik, aurtengoa lau ikastaro sailetatik kanpo antolatu dira: "Filosofia eta oilo zopia" (Sukalderitza), "Euskal zinema lantzen: begiradaren heziketa, irudiei buruzko alfabetatzea eta

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

AMINAK

zurbeltz

adalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



**EAJ
PNV**

Hitza, bihotzaren giltza:

**GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

IRYSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITVRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**

zinemagintza praktikorako lehenengo urratsak", "Euskal kultura eta identitatea XXI. mendean" eta "Yoga eta herrigintza: jabetuz jabe egin".

Aurten ere, izen eta profesional handiak ere izango ditugu gure artean. Hala nola, Juan Mari Arzak sukaldaria, Jose M. Gorrotxategi gozogilea eta Mikel Garaizabal enologoa; Joan Mari Irigoien, Kirmen Uribe, Rikardo Arregi eta Felipe Juaristi idazleak (besteak beste); Eneko Olasagasti, Asier Altuna eta Koldo Almandoz zine zuzendariak; Pello Zabala musikologo eta eguraldi-iragarlea; aurtengo CAF-Elhuyar sariaren irabazleak; Leonen gerra zibileko hilobi komunetan indusketa egin zuten Arantzadiko kideak eta beste hainbat egongo dira aurtengo edizioan.

Saio osagarriak eta dirulaguntzak

Urtero bezala, ikastaroez gain saio osagarriak ere antolatu dira 31. Ikastaldi honetarako, "azken batean UEUK ikastaroak baino zerbait gehiago eskaini nahi baitu; jendeak elkar ezagutu eta ondo pasatzea nahi dugu, eta saio hauek oso garrantzitsuak dira giro berezi bat sortzeko garaian", azaltzen du Irati Iciar-ek. Azpimarratu beharra dago saio hauek guztiz irekiak eta doanekoak direla. Biarritzen, Skunk taldearen kontzertua, bizikletaz egindako mundu biraren diorama eta emanaldi poetiko multimedia ikusi eta entzuteko parada izango dute bertara joaten direnek, besteak beste. Iruñeko eskaintza ere ez da makalagoa izanen. Joseba Tapiaren Agur Intxorta maite, Txoritxu bet dekot eskuetan antzezlan, barkATU bertso ekitaldia (Sustrai Kolina, Amets Arzallus

eta Unai Elizasu) eta jazz kontzertua (Amama Luisa Brass Band) izango ditugu bertan, besteak beste.

Irati Iciar-ek UEUren udako ikastaroetarako dauden dirulaguntzen inguruko informazioa ere aipatu nahi izan du: "Lehenik eta behin UEUK berak ikasle, langabetu eta bere bazkideentzat dirulaguntzak ematean dituela azpimarratu behar dugu, izan ere, hauek guztientzako matrikula prezio merkeagoak jartzen baititu. Bestetik, UEUK Euskal Herriko ia udaletxe guztiei zuzendu die gutun bat ikastaroetan parte hartzen duten herritarrei dirulaguntzak emateko eskatuz. Dagoeneko hainbat udaletxeek baieztatu dute dirulaguntza hori emango dutela; zerrenda osoa programan bertan topatuko daiteke. Hala ere, beste udaletxe askok oraindik ez digute erantzuna eman, baina horietatik batzuk baiezkotako emango dutela ziur gaude. Arazo nagusia, hala ere, jendeak dirulaguntza hauen berri ez daukala da, eta beraz, askotan nahiz eta dirulaguntzak egon jendeak ez ditu eskatzen. Horregatik, zera gomendatu nahiko genuke: norberaren Udaletxeko Euskara edota Kultura Zerbitzura jotzeko eta bertan galdetzeko ea laguntzarik ematen duten UEUren Udako Ikastaroetarako, eta baiezkotako bada, ba beraiek adieraziko dute zer nolako pausoak eman behar diren. Azkenik, aipatzekoa da ere Bizkaiko Foru Aldundiak azken urteotan dirulaguntzak eman dituela, eta nahiz eta oraindik baieztatuta ez dagoen, ziurrenik aurten ere deialdia aterako dutela. Beraz, bizkaitarra bazara eta laguntza hauen berri gehiago jakin nahi baduzu, deitu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zerbitzura".

UDAKO IKASTAROEI BURUZKO HAINBAT DATU

Izena emateko epea jadanik irekita dago eta **ekainaren 29an** amaituko da. Ekainaren 14tik aurrera matrikula %15 garestiagoa izango da, eta ohiko lekuetan egin ahal izango da. Hala ere, UEUK Web-gune bidezko matrikula bultzatu nahi du jendearentzat azkarragoa eta erosagoa baita: www.ueu.org/ueu/index

Matrikula-prezioei dagokienez, iaz bezala, matrikulatuaren izaera eta ikastaroen iraupenaren arabera desberdina izango da.

Biarritz: Uztailak 7-11 Lycée Hotelier
Iruñea: Uztailak 15-19 Larraona ikastetxea

IKASTARO KOPURUA

Guztira: 28 Biarritz: 12
Iruñea: 15 Ondarroa: 1

ORDU KOPURUA: Guztira: 510 ordu

IRAKASLE KOPURUA

Guztira: 197 Iruñea: 101
Biarritz: 93 Ondarroa: 3

MATRIKULA TOKIAK

Bertan matrikula prezioak (baldintzen arabera, 25 eurotik 101-116 bitatera) eta Biarritz zein Iruñeko egoitza eta otorduen inguruko prezioak argituko dizkizute.

Web-gunearen bidez: www.ueu.org
www.ueu.org/ueu/index

Baiona. UEU, Douer karrika 5, Baiona. 05 59 25 60 56

Bilbo. UEU, Erribera kalea 14, 1.D, Bilbo. 94 679 05 46

Donostia. BAGERA, Pedro Egaña k., 2, 1. Esk., Donostia. 943 46 71 81

Eibar. UEU, Markeskoa, Otaola hiribidea 1, Eibar. 943 82 14 26

Gasteiz. ARRIAGA MEGADENDA, S. Prudencio 7, Gasteiz. 945 14 45 01.
ARRIAGA CAMPUS. 945 01 42 91

Iruñea. UEU, Joakin Beunza 13 bis, Iruñea. 948 36 25 63

KARRIKIDENDA, Martin Azpilikueta kalea 16, Iruñea. 948 22 25 89

AUZOLAN LIBURUDENDA, Tudela karrika 16, Iruñea. 948 15 38 67

BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

SARTU
Zure arropa eta oinetakoak
www.sartudenda.com
Kubxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behe
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

BARRA TABERNA
Eranditxan, astelehenetik ostirarte
JANTOKI BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

Bacalao Giraldo



- Egunko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldian plaza
GASTEIZ

publizitatea

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago
pintxorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



eUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

12 ale 36€
urtean 30€



HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

DEITURAK: _____

IZENA: _____

HELBIDEA: _____

_____ P.K: _____

HERRIA: _____ LURRALDEA: _____

TFNOA: _____ SORTEGUNA: _____

POSTA E: _____

Ordainketa mota:

☐ Txekea ☐ Kontu korrontea

Titularra: _____

Ipar E.H. _____

Ipar E.H. _____

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 behe. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)

Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83

E posta: lumazorrotz@infonegocio.com

EKAINA

2

GEUJIRAN, geu elkarte eta geu aldizkariaren irratsaio berri, fresko eta bizia. Astelehenero, 23.30etatik 24.00etara, Radio Vitoria-n.
Astelehenero, beraz, baita hilaren 9, 16, 23 eta 30ean ere.

3

Parral. Teatro para pollos taldea: 'En alta mar'. 20.30etan

7

Gasteizko Gaztetxea
Gasteizko Gazte Asanbladak antolatua. Kontzertua: KEROSENO 69 (Castelló) Punk-metal. 22:30etan - 3 €

8

-ARABA EUSKARAZ 2003. OION
-III. ARGAZKI RALLIA: Araba eta Natura (ikus. 36. orrialdea)

10

Parral. Lindane taldea (Punk-rocka. Ermua) 20.30etan

13

Gasteizko Gaztetxea
LA CRIATURA DEL PANTANO fancinearen aurkezpen jaia. Kontzertua: **CANCER DE ESCROTO-ANTISOCIAL** 21:30etan - 3 €

14

Gasteizko Gaztetxea
PINTXO Y KORTO kolektiboak antolatua. Kontzertua: **GUERRILA URBANA (Kanariak)** 21:30etan - 3 €

hikaateneo

C/ Pintoreria kalea, 13- Vitoria/Gasteiz
Tf: 945-288192-Fax: 945-203509
E-mail: hikaateneo@ikusnet.com

15

GEUREKIN MENDIRA PAGASARRI (839).
Durangaldean
Irteera tokia: Lovaina plazan, goizeko 9.00etan

17

Parral. Kebab (jazza) 20.30etan

19

Gasteizko Gaztetxea
Gasteizko Gazte Asanbladak antolatua. Kontzertua: **AINA (Bartzelona)** eta **MIZTURA (Donostia)**. Disko berriaren aurkezpena. 21:00etan - 3 €

22

SAN PRUDENTZIO ARGAZKI LEHIAKETA XXXIV ERAKUSKETA
Ekainaren 22ra arte.
Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegian



24

KULTUR ERROTA, GEU elkartearen eskutik. Kontzertua: **BIHAR BERRIZ** pop-rock musika taldea. Parral. 20.30etan

25

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA, geu elkartearen ekimenez
AZKEN SAIOA
Mintzagai izango den liburua: Joseba Sarrionandia, "Lagun izoztua". Elkar, 2001
LEKUA: Hikaateneoa, Pintore kalea 13 (alde zaharra)
ORDUA: 20:00etan

27

Gasteizko Gaztetxea Gasteizko Gazte Asanbladak antolatua. Kontzertua: **ZEIN (Ortuella)** Rock. 21:00etan - 3 €

Beste

- JOSE ANTONIO LOIDI IKERKETA BEKA

Ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika.

Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko dira.

Lanak aurkezteko epea: 2003ko irailaren 10etik 26ra arte.

Oinarriak, informazioa eta eskaera-orri ereduak webgunean: www.irun.org

Informazio gehiago: 943649412.

- **VI. Igartza Saria:** Literatur sorkuntzako beka idazle berrientzat. Bekaren kopurua: 6000 euroko dirulaguntza. Epea: uztailak 1. Informazioa: Beasaingo Udala-Euskara Zerbitzua.

- **3. Umore grafikoko nazioarteko lehiaketa**, "Tecnologia berriak" izenpean. Epea: 2003ko azaroak 3. Lanak eta datuak bidaltzeko: hermesbarakaldo@barakaldo.org. Informazioa: Barakaldoko Udala.

- AUGUSTIN ZUBIKARAI III. SARIA

Nobela laburrentzat

Antolatzaileak: Ondarroako Udala eta Elkar argitaletxea.

Euskal kultura aberasteko eta idazleen lana bultzatzeko

Epea: 2003ko abenduaren 1a.

Informazioa: Ondarroako Udala-Euskara Zerbitzua.



AUGUSTIN ZUBIKARAI III. SARIA
Nobela laburrentzat 2003

4

Film laburren emanaldia
20.00etan. Arte eta Lanbide Eskolako ikasleak (1. SAIOA)

9

Hitzaldia: 20.00etan. "Argentina, ¿y ahora qué?" Daniel Pereira (PRT argentinarra-kide ohia)

11

Hitzaldia: 20.00 etan. "¿La banca gana! Guerras y economía". Arcadi Oliveres, mundu mailako ekonomian aditua eta Justicia y Paz-eko lehendakariordea

18

Film laburren emanaldia 20.00etan. Arte eta Lanbide Eskolako ikasleak (2. SAIOA)

19

Hitzaldi-egtabaia: 20.00etan. "Situación política tras el 25-M". EAJ-EA, SA, PSE eta EB talde parlamentariaren ordezkariak

24

Film laburren emanaldia
20.00etan. Arte eta Lanbide Eskolako ikasleak (3. SAIOA)


25

Gasteizko Irakurle Kluba:

20.00etan. kurtso honetako azken liburua: Joseba Sarrionandia, "Lagun izoztua". Moderatzailea: Iban Zaldúa

Ekainean zehar

MARGO ERAKUSKETA "MASCARAS AFRICANAS". Pascal Senegal



LABURPENA

6. atalaren LABURPENA: "Plan aldaketa". Edu Zelaieta

Maletetan garrantzizko ezer gutxi dutela dio Asunek, eta hori entzun bezain laster Jonek, nerbioak dantzari, "ez dakit zer gertatzen den hemen, baina oso arraroa da dena", adierazten du; neska berdintsuak, maleta berdin bana, zerbitzaria zelatan, antza... Asunek kontua hain harrigarria ez dela azaltzen dio: ahizpa bikiak, antzeko gustuak... Jon konturatzen da Asunek azaldutakoa logikoa dela eta susmatutakoa bere irudimenak sorturikoa ez ote den. Barkamena eskatzen die, edaria eta beroa aitzaki. Komunera doa, lasaitzera gehienbat; bertan Pablos oroitu, eta aldi berean aspaldiko mamuak etortzen

zaizkio gogora: ospitalea, zazpigarren solairua; Pablo ezagutu zueneko. Komunetik at eta ordaintzeko asmoz, Asunek esaten dio Bikien Klubera bikiren batek ekarrita bazoaz, tradizioagatik ezin daitekeela ordaindu. Handik atera eta bakoitza bere gauzetan pentsatzen hasten da: Joni orain bost maletetan zer dagoen jakitea; Asunek "Honek zer uste du, beste planeta batetik etorritakoak garela, edo zer?", pentsatzen du bere baitarako; bere asmoa berarekin gau ona pasa eta txortan egitea baino ez zela; orain, dena dela, gogo gutxi dauka. Baina hor dago Marga, berotzen hasia. Bikiak, gustuak, gustuak, bikiak...



GERARDO MARKULETA

7.- "Nire maleta bikia"

- Momentu bat baino ez dut behar aurpegian hauts batzuk jartzeko, zaindu nire ahizpa bien bitartean, moñoño! -esan du Asunek komunera bidean, ez oraindik jaikitzeke keinua eginez, batez ere mutilari begira.

Margaren mozkorra apaldu egin da, baina ez zeharo desagertzearaino. Hodei batean oraindik, bigarren ahizpak, behingoz bere burua

lehenaren zaintza zorrotzetik aske ikusita, haragi eraso garbiari ekin dio, gutzizko naturaltasunaz, Jonen harridura mugagaberako; haren begi txinpartatsuen zauria nabaritu du aurrena, baina laster neskaren esku sugandilatsuak jarraitu dio afanean.

Jonek ezin du sinetsi, eta gogora etorri zaio, hasieran ere, arratsalde partean, Asunek kasu egin dionean, ezin zuela sinetsi; ezin sinetsi, gero, bere autoan biak gori-gorian zeudela,

neskak lehenago beste mutil baten etxera joan behar zutela esan dionean; ezin sinetsi, mutil harentzat taxilari lanak egin behar izan dituenen; ezin sinetsi, azkenean, afaltzen hasi eta neskaren ahizpa bikia jatetxean seko mozkortuta agertu denean. Eta, jakina, ezin sinetsi orain beste bikiaren eskua, ziraun-mordoxka urduri baten modura, bere hanka tartean daukala, eta ez prexio geldirik. Orain Jon ez da Pablarekin gogoratzen.

Asunek, kontatzen duena baino dezente gehiago daki, edo susmatzen



Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak
Aitzogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua euskaraz bizi


PITILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

azkarprint
Imprenta / Inprimategia
S INPRIMATEGIA S
Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ



du, hain erraz esatekoak ez diren gauzak: neskak bere buruari berari ere nekez kontatzen ahal dizkio, eta ahizpek beren artean estal-hitzez baino ez dituzte aipatzen. Singer idazle juduak behin idatzi zuen bezala: "Badira sekretuak bihotzak ezpainei ezin esan dizkienak".

Dirudienez, aspaldi da neska bikiek mutil bat, ez "txandakatzeko" -Joni aitortu bezala-, baizik eta banatzeko, konpartitzeko asmotan dabiltzala. Jolasean, hainbat saio txiki egin dituzte jai erraldoietan mutil ezezagunekin, ur sakonetan sekula sartu gabe ordea.

Dirudienez, neskek, ematen ez badu ere, egin berri dituzte hogeita hamar urte, eta urtebetetze jai horretan bertan, amaiera aldera izugarritzko atxurarekin zeudela, biak batera mutil beraren haziz haurdun gelditzeko promesa egin zioten elkarri, oso modu solemnean, txikitatik gauza bereziatarako erabili ohi duten errito soil eta bitxi batez.

Jonek ez daki ezer, noski, horretaz guztiaz, eta Margaren eskuaz beste ezertaz ez du jakin gura orain, nahiz eta aldi berean Asunen ezpainak ere gogoratzen zaizkion.

Jonen irudimenik lizunenean ere ez luke lekurik hiruren arteko sexu-saio batek, nahiz eta orain, ondo pentsatuta, bizitza guztian inguruan izan duen errealtaterik lizunenean murgilduta dagoen.

Zer deabrukeria ariko ote da asmatzen beste sorgin hori komunean?

Bat-batean, aldi berean zerbitzariaren ikusmina eta beste bien larrumina kraskatuz, Asun agertu da, berrindartuta antza, aurpegiko gerra-koloreak berrituta, eskuko telefonoa eskuan, eta itxura batera egurra dakarrela mundu guztia erantzat:

-Marga, hagoen moduan egonda ezin dun txofer egin. Har itzan maleta biak, eta hator gurekin Jonen autoan. Hirea hemen utzi, eta bihar jasoko dinagu.

Eta burua mutilarengana jiratuta: -Jon... Zera..., berriak daude. Eta Margak, harrapatu duen legatzarekin, ezin du gidatu... Zera..., eramango gaituzu berriro Victorren etxera?

Margaren konplize begiradak lagundu dio mutilari eztarrian gora zetorkion oihu amorratuari eusten. Asunek ere -ohartu da-errégumutxo bat ezpainetan egin dio galdera, keinu prometagarria inondik ere, edo Joni hala iruditu zaio behintzat.

© gerardo markuleta eta geu aldizkaria

Maiatzeko alean Kirmen Uribe idazleari egindako elkarrizketarekin batera bere olerkietako bat hautatu eta horren inguruko azalpentxo bat egin zezala eskatu genion. Hona hemen:

BALKOIAK ETA POEMAK

Esaten da bi poesiak daudela. Batak eguzkiarekin du zerikusia, besteak ilargiarekin. Batak egunarekin du zerikusia besteak ilunbeekin. Eguzkiaren poesia argia izaten da, argiak eta koloreek hartzen dute poema. Transmittitzen duena ere halakoxea da, barruko bakea, une zorointsu bat. "Hodeiak" poema tradizio horretakoa da. Jatorria haurtzaroko irudi batean du poemak. Txikitik, ikastolatik etxerako bidean kontserba-lantegitik ateratzen genuen emakumeekin egiten genuen topo. Emakume haiek ohitura zuten neguko egun eguzkitsuetan Ondarroako harrizko zubi zaharrera joan eta hantxe eguzkia hartzeko. Berotan egoten ziren hantxe eseririk, kontuak esaten, begiak itxirik eta burua eguzki aldera jarrita. Atsegin nuen benetan irudi hori, beharbada haienezako eguneko unerik lasaia. Lasaitasun hori botatzen dut faltan askotan eta lasaitasun hori jaso nahi izan nuen poeman. Atsegin ditut bestalde kostaldeko herrietako balkoi horiek ere, denak ere izarek beterik egun ona aterabada.

Poemak haikuen eta lur zabalean dauden poema laburren egitura hartu nahi du. Haikuak Japoniako poema laburak dira, hiru lerro baino ez dituzte. Maiz lotura izaten dute naturako elementuekin, euskal kopia zaharrek bezala, baina hori ez da inportanteena. Inportanteena poetaren begiratura da eta begiratu horrekin egiten duen gogoeta. Matsuo Basho, haiku idazlerik ezagunetak argi esan zuen: "Haikua hemen eta orain gertatzen ari dena da, besterik gabe". Horixe da "Hodeiak" ere.

HODEIAK

*lhesi doaz hodeiak. Neguko
eguzkiaren usaina maindireek.
Goiz da oraindik.*

kirmen uribe

CEGASA INTERNATIONAL
ALCALINA
CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
TOP ENERGY
ALKALINE

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA** HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



NABARRALDE:

:nabarralde

asmo politiko edo lurralde politiko. Horrelaxe ulertu zuten Joanes Leizarragak eta Axularrek lehen aldikotz idatzi zutenean.

Euskal Herria euskararen herria da. Euskaraz mintzo den populua adierazten du. Hizkuntzak, ordea, etengabeko lurralde murrizketa jasan du azken 2000 urteotan.

Erromatarrek, "Ager Vasconum" -baskoien lautada- eta "Saltus Vascomun" -baskoien mendi aldea- ziotenean, hizkuntz komunitate bakar batez ari ziren. Orduan, oraindik, politikoki egituratu gabe zegokeen populuz, alegia.

Antso VI. Jakituna ez zebilen txorakerietan euskarari "lingua navarrorum" deitu zionean. "Nafar" kontzeptua euskaldun askeei zegokien hitza izaki, nortasun politiko hori zeukatenen hizkuntzat jotzen du erregeak.

IX. mendetik bere burua politikoki egituratuta zeukan herri hark etengabeko lurralde higadura jasan behar izan zuen: 1200.erao Nafarroako Erresumak mende-baldeko lurraldeak galduko zituen (ordudanik Gaztelako koroaren menpe bere burua administratiboki egituratuko zuten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa); 1512.ean Hego-Ekialdeko lurraldeak (Nafarroa Garaia deitu ohi duguna); 1620ean, Nafarroako Erresuma murriztua Frantziakoari lotuko dio Luis XIII.ak.

Horren erreferentzia historiko-politiko garbia ukan duen herriak bere memoria historikoari uko egin eta XIX. mende

Euzkadi hitza asmatu zutenek arrakasta azkarra ukan zuten. Euskaldunon askatasun egarria adierazteko kontzeptu baliagarria izan da urte luzez jende aunitzendako eskualde batzuetan. Azken 25 urteotan, Espainiak onartu eta gidatu duen euskal egituraketa instituzionalarekin batera, Euskadi hitza prostituitu da. Mende-baldeko lurraldeek haien egituratze

politikoa adierazteko kontzeptutzat hartu dutenez, Euskal Herri osoaren adierazpide politiko izateko gaitasuna galdu du, sekula izan baldin badu.

Euskadi kontzeptuaren ordezkotzat jo dute hainbatek Euskal Herria. Alta, azken hitz honek sekula ukan ez duen esanahi politikoa erantsi nahi izan zaio. Izan ere, Euskal Herria hitza euskararen herria adierazten du, eta ez inolako

nortasun politikoa berreskuratu

Erlantz Urtasun eta Gaizka Aranguren (NABARRALDEko kideak)

**Euskal Herria: kontzeptu kulturala.
Nafarroa: Euskal Estatua.**

amaieran abiatuko den "Euskal nazionalismoaren" diskurtsoaren arabera bideratuko du, nagusiki, bere askatasun egarria. "Euskal estatu Independentiek" deitu zituzten erreferentzia historiko faltuetan oinarrituta eta euskalduntasunaren eredu atlantiarra nagusitzat hartuta, euskal nazionalismoak imaginario kolektibo murriztua osatu zuen. Anacleto Ortueta bilbotarrak "Desplazamiento geográfico del concepto de Vasconia hacia el Atlántico" esaldiarekin kritikatu zuena ("Vasconia y el Imperio de Toledo". Ortueta, A. 1934; 428.or.).

Arana anaiek abiatu zuten pentsamendu politiko hark lehen urratsak ematen zituen garaietan, ordea, bazen bertzelako ekarpenik. Nafarroa euskaldunon babesleku politiko historikoa izan dela azpimarratu zuten egile aunitz Asociación Éuskara de Navarran bildu ziren (Campión, Iturralde y Suit, Pedro Navascués, Altadill...), baina ildo berean sakondu zuten bertze hainbat ez ziren hego-ekialdeko jatorrikoak (Anacleto Ortueta -Bilbo-, Ildefonso Gurrutxaga -Azpeitia-). Hauen guztien ekarpenak baztertu ditu XX. mendeko euskal abertzaletasunak. Aranismoan oinarritu du euskal abertzaletasunaren adar orok bere diskurtsoa. Mende luzez euskaldunon adierazpide politikoa izan den Nafarroa kontzeptua "Euskadi" izeneko asmakizunaren zati bat bertzerik ez zelakoan eta "Nafar" kontzeptuak euskaldunon nortasun politiko eta juridiko subiranoa adierazten duela aintzat hartu gabe. Mende amaieran, Mendebaldeko lurraldeek osatuko duten egitura politikoak -EAEk- egin duen "Euskadi" kontzeptuaren

patrimonializazioaren ondorioz, "Euskal Herria" kontzeptuari eman nahi izan zaio esanahi politikoa, nahiz eta jakin, badakigun, gure nortasun kultural eta linguistikoa adierazteko terminoa baizik ez dela.

Nafarroa ez da Euskal Herriaren zati bat. Ez da euskal lurralde bat. Nafarroa da euskal lurraldea. Hain zuzen ere lurraldetasuna, bere osotasunean, adierazten duen kontzeptu historiko, juridiko eta politikoa. Nafarroa izan da euskaldunon etxe politikoa. Ez dugu zertan ezer eraiki beharrik. Zimentuak nabarmenak dira. Berreraikitze zimentu garbiak baditugu. Gure burua nafar herritartasun politikoa berreskuratzeko bidean jarriko ez dugun bitartean jai dugu.

Ikuspegi honetan oinarrituta sortu zen 2001eko urrian NABARRALDE ekimena. 2002. urtean zehar barne antolaketa lanetan aritu gara. 2003. urtearekin batera gure burua ezagutzera ematen hasi gara dozenaka aurkezpen txiki eginez, gure webgunea osatuz (www.nabarralde.com), eta ekimenaren biziraupen ekonomikoa ziurtatuko duten sustatzaileak bilatuz (500 dagoeneko). Kultura, ezagupena, jakintza eta komunikazioaren esparruan kokatzen dugu gure burua. Gure memoria historikoa eta nortasun politikoa berreskuratzeko lanean ezinbertzekotzat jotzen baitugu dibulgazio eta komunikazio lana.

Honen bitartez dei egiten dizuegu sentsibilitate honekin bat zatoztenei gurekin harremanetan jar zaitezten: info@nabarralde.com-en bitartez edo (34) 902 197 051 telefonoan.

© erlantz urtasun, gaizka aranguren eta geu aldizkaria



arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com





AMBULANCE

era batera edo besterako melodiak sortzen dira: gure sentipenak isladatuta gelditzen dira.

Musikaren inguruan soinu akustiko zein elektrikoak nabarmentzen dira eta gitarra elektrikoak abestiaren pisu gehiena bere gain hartzen du. Disko honetan, guretzat berria izan bada ere, elektronikaren bidez erritmoak moldatu eta abesti batzuk girotu nahian ibili gara eta aurrerantz bide hau jorratzen jarraituko dugulakoan gaude.

- Zeinek egiten ditu letrak eta zeri buruzkoak dira?

Gure erreperatorioan askotariko arrazoiengatik jaioetako abestiak daude; gehienetan gure inguruan gertatzen diren istorio txikiak oinarrituak, taldeko edonori edo taldeari berari gertatutako zeozer. Beste batzuetan gure pentsamenduen hausnarketa izaten da gai jakin baten inguruan. Horrela, alde batetik letra deskriptiboak ditugu, edonorentzat eszenatoki berdina aurkezten dutenak eta bestalde letra intimistak, bakoitzak bere bizitzara eraman ditzakeenak. Eta azkenik, diskoan bi abestirekin egin bezala, zuzenean poeta baten hitzak hartu eta musika jartzen zaio.

Gure diskoan bi abesti (Ez Nazazu Begira eta Estaltzen Zaituen Ehuna) Juanjo Olasagarre idazle Arbizuarraren Gaupasak liburutik hartutako hitzekin osatu genituen; beste kanta bat Sergiok idatzi du eta gainontzekoak Mikelek.

Landuko zuten musika arloa aukeratutakoan gazteak kantak sortzen hasi ziren eta zortzi abesti izango zituen maketa bat grabatzen hasi ziren. Maketa hori bukatzeke zutela, berri, Nafarroako Pop-Rock lehiaketara kanta batzuk bidali zituzten eta topaldi horren finalera iritsi ziren. "Finalean bigarren sailkatu ginen, ez dago gaizki, lehiaketa horren historia guztian erreperitorioa euskara hutsean eramanez finalera heldutako lehenengo taldea ginelako kontutan harturik". Lehiaketa hark aurrera egiteko motibazioz bete zituen Sakanakoak eta dagoeneko fruitua eman du. Ambulance pop taldeak badu hamahiru kantaz osatutako eta Elkar estudiotean aurtengo urtarrian grabatutako bere lehendabiziko diskoa, "Gaua iristen den momentuan".

- Nondik sortzen da "Ambulance" taldearen izena?

Beno, dagoeneko mundu guztiak jakingo du litoiz taldearen maxi famatu baten izenetik hartu dugula izena. Guretzat talde

hau erreferentzia nagusia izan da, baina ez genduke nahi jendeak Ambulance-n musika entzutean litoizen antzeko zeozer aurkituko duela pentsatzea, halaber, garai oso desberdinak direlako eta ez dugu eurekin konpara gaitzaten nahi.

- Zer da gertatzen dena "Gaua iristen den momentuan"?

Gaua iristen den momentuan bestelako gauzak gertatzen zaizkigu, gehienetan gauza interesgarrienak: paisajea aldatzen da, ingurua aldatzen da, gu geu asko aldatzen gara. Disko honetako abesti gehienak gauaren inguruan sortu dira. Beiruteko Txakurrak abestia hitz horiekin hasten da eta esaldia egokia iruditzen zitzaigun.

- Nola deskribatuko zenukete zuen musika estiloa?

Pop estiloko kantuak egiten ditugu. Gure musika melodiarik oinarritzen da, melodiak agintzen du beti. Gehienetan malenkoniak betetako melodiak, baina baita indarra proposatzen dutenak ere. Betiere gure inguruak asko baldintzatzen gaituelako,

Garagardotegia

Asteartetik
Igandera
IREKITA

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

udako ikastaroak
bai & by
land

Florida kalea, 8 • 945 150 155

taldea, pop berria: “Gaua iristen den momentuan”

Duela bi urte pasatxo elkartu ziren Ambulance osatzen duten Sakanako bost kide. “Hasiera hartan bertsio batzuekin osatutako bizpahiru emanaldi eman genituen Sakana aldean helburu nagusi batekin: nolabait gure estiloa markatu eta taldearen partaide guztien arteko elkar ulertzea indartzea”, diote naparrek.

Ambulance taldea

Patxi Razkin (Lakuntza): ahotsa.

Ismael Jimenez “Kata” (Bakaiku): gitarra elektrikoa eta akustikoa.

Sergio Goikoetxea “Txef” (Lakuntza): bajoa eta koroak.

Mikel Goñi (Altsasu): teklatura, gitarra akustikoa eta koroak.

Ricardo Areta (Lakuntza): bateria eta programazioak.


Musika eta hitzak: Mikel Goñi; “Ama lurra”, Sergio Goikoetxea; “Ez nazazu begira” eta “Estaltzen zaituen ehuna”, Juanjo Olasagarre idazlea.

Diskoaren produkzio edo ekoizpena, Ricardo Areta.

Kolaborazioak: Fran Iturbe.

Grabazio Teknikaria: Jean Phocas.

Disketxea: Oihuka.



Naturaren isladak



Makalen (*Populus* sp.) hazien sakabanaketa, udaberriko elurtea.
Batan (Vitoria-Gasteiz). 2003ko maiatza.

124 03/5



• **NONDIK NORA:** Gasteiz-Peru (Machu Picchu).

• **HERRIAREN DATUAK:** Peruko errepublikak 1.285.220 Km²ko zabalera dauka eta 27 milioi biztanle bizi dira bertan. Bere hiriburua Lima da, eta beste hiri nagusiak Arequipa, Callao, Trujillo eta Chiclayo dira. Etniei dagokienez, gehienak kitxuak edo mestizoak dira, baina badira zuriak, aimarak eta bestelako indiarrek ere.

• **NOLA JOAN:** Madriletik Limara zuzen doazen hegaldiak badira, eta Limatik bertatik Cuzcora egunero ateratzen dira hegazkinak. Cuzcotik Machu Picchura trenez edo autobusez joan daiteke.

• **ZENBAT DENBORA:** 2 aste.

• **AURRETIK PRESTATU BEHARREKOA:** Pasaportea eramatearekin nahikoa da, Espainiar Estatutik doazenez ez baitute bisaturik behar.

• **MOTXILAN ZER ERAMAN:** Peruko ezaugarri geografikoak eta klima oso aldakorak direnez, denetarikoa arropa eramatea komeni da, beraz, beroa eta hotzerako apropos diren jantziak eraman. Oinetako erosoak eraman, dezente ibiliko baitzarete eta ez ahaztu kapela ere eramatea, eguzkiak eruz jo dezake eta.

• **TXANPONA:** Bertako moneta Sol Berria da (Sol batek 0,3 euro balio du gutxi gora-behera).

• **HIZKUNTZA:** Hiru hizkuntza ofizial hitz egiten dituzte bertan: gaztelania, kitxua eta aimara (bestelako hizkuntzak ere erabiltzen dituzte).

• **HELBIDE-KONTAKTU INTERESGARRIAK:** Perun mota guztietako alojamentuak aurki daitezke. Tratuak egiten abilak zaretenok, prezio merkean lo egingo duzue.

-Liman, esaterako, lo egiteko hotel merkeenak Jr. Rufino Torrico kalean edo Miraflores zonaldean aurkituko dituzue.

-Bestalde, Machu Picchura joateko Cuzcotik egin dezakezue, autobusez edo trenez. Autobusen txartelak El Sol hiribideko egoitzan saltzen dituzte, eta trenarenak San Pedro geltokian.

• **TOKIAREN DESKRIAPENA:** Machu Picchu edo Inken hiri galdua, halaxe du izena mundu zabaleko tokirik bisitatuenak eta, aldi berean, ezezagunenak. Misteriozua, zoragarria, ondare arkeologiko miresgarriez beteta..., kitxua herriaren historia islatzen duen tokia.

• **PLAN EREDU EGOKIA:** Gutxienez bi edo hiru asteko bidaia egitea gomendatzen dugu.

MACHU PICCHU (PERU)



- Limara heltzen gara eta bertan askoz jota bi egun igaroko ditugu.
- Limatik Cuzcorako hegazkina hartuko dugu. Bidean munduko bigarren mendikate altuena zeharkatuko dugu: Andeak.

- Cuzcon egun batzuk igaro ostean Bailara Sakratuan barneratuko gara.
- Machu Picchura joateko modurik politena da Ollantaytambora doan autobusa hartzea. Pisac herrian geldialdi bat egingo dugu, bereziki bere parke arkeologikoa ezagutzeko.

- Ollantaytambon trena hartu behar dugu Aguas Calientes herriraino.
- Bertatik laster batean iristen da Machu Picchura, autobusez.

• AHOLKUAK, JAKIN BEHARREKOA:

- Kontuan hartu behar da Andeek Peru zeharkatzen dutela, eta beraz, zaila dela leku askotara heltzea. Horregatik, hegazkina erabiltzea oso gomendagarria da. Bidaia motzak egiteko, autobusa aukera ona, koloretsua eta dibertigarria da.

- **Osasuna:** Sorochea edo altuerako gaitza oso ohikoa da Andeatako zonaldean. Izan ere, Cuzco bezalako hiri batzuk 3.360 metrotara daude. Gaitz hori saihesteko modu bat coca matea edatea da. Oihanean izan ezik, gainontzeko tokietara joateko txertorik hartzea ez da behar.

• DERRIGORREZ EZAGUTU BEHARREKOA:

- **Cuzco:** Amerikako hiri arkeologikoa deritzote. Kitxua kulturak eta estilo kolonialak bat egiten dute historia handiko hiri honetan. Machu Picchura joateko ezinbestekoa da hiri honetara joatea.

- **Aguas Calientes:** Andeen eta Amazonia oihanaren artean dagoen Ceja de Selva gunean dago herri hau. Bertako bainu termalak zoragarriak dira.

• BESTELAKOAK:

- **Janariak:** la toki guztietan janari kreola (europarra) topatuko duzue. Baina bertako janaria dastatzekotan, hauetxek: rocoto betea, cebichea (arrain gordina) edo zopa kreola bezalako "chupe" goxo bat.

- **"Inca Cola":** Edari hau sinbolo bat da Perun (baita Hegoamerikako herrialde askotan ere). Kolore horikoa da eta zapore izugarri gozoa dauka. Dastatu beharrekoa!

GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

sukaldaritza
denbora-pasa

HUR SOUFLÉEA GIRLATXE IZOZKIAZ eta AMARENA eta OZPIN SALTSAREKIN

4 PERTSONENTZAKO OSAGIAK:

Hur orea	400gr
Hur txigortu eta birrinduak	100gr
Gurina	400gr
Arraultza gorringoak	500gr
Azukrea	200gr
Arraultza txuringoak	3
Fray Angelico (likorea)	0'5dl

Saltsarentzat

Modenako ozpina	1dl
Amarenak	200gr
Azukrea	50gr
Bainila adar erdi bat	

Goarniziorako

Girlatxex egindako izozki edo biskuit izoztua
Mugurdi pastelxo bat / Tulipa
Mentabeltz hostoren bat

PRESTAKETA

Souflée-a:

- Gurinaz igurtzi moldearen paretak eta ondoren irinetatik igaro.
- Hur pasta eta gurina elkarrekin urtu tenperatura gehiegi hartzen utzi gabe.
- Gorringoak Maria bainuan altxatu, 60º-tara iritsi arte, loditasuna izaten duen arte.
- Gehitu hur pasta eta gurinaren nahasketa gorringoei, pixkanaka eta poliki-poliki, goilare baten laguntzaz. Ondoren gehitu hur birrinduak eta likorea.
- Txuringoak altxatu eta kontu handiarekin aurreko nahasketari gehitu.
- Moldeetan jarri, bere 2/3ak beteta.
- Labean 200ºC-tan egosi altzairuzko erretilu bero batean jarrita.

Saltsa:

- Jarri sutan ozpina eta bainila, ontzi herdoilgaitz batean eta su motelean, eta utzi irakiten bost minutuz.



- Kendu bainila, eta gehitu amarenak eta azukrea, utzi 15 minutuz egosten su motelean.

- Birrindu saltsa, eta iragazkitik igaro, berriro sutan irakinaldi bat eman eta jarri

gozotasunez norberaren gustura.

- Utzi epeltzen.

PLATERAREN ANTOLAKETA

Jarri plateraren alde batean soufflée egin berria moldetik atera ondoren eta azukre-hauts pixka bat zabaldu bere gainetik.

Atera pare bat izozki-bola eta jarri tulipa barruan eta mentabeltz hostotxo batekin apainduta.

Nahi izanez gero mugurdi pastelxo bat jarri eta apaindu saltsarekin.

Oharra:

Souflée-a, egin berritan eta bero jan behar da.

	Biltokia	Arabako udalerrria	Pipia	Harroa, handinahia	Lasterketa
	Birak, jirak	Kontso-nantea	Baiezta-tzeko	Nori atzizkia	
	50	Idazlan mota			
	Gipuzkoak o ibaia	Domeka			
* Izena	Belarriko gaitza			Kontso. bikoitza	
* Deitura	Hautsi			Errepikak	
			Soro		
			Bokala		
Talde militar				Denbora tarte	
Uretako biziduna				Ald., egile atzizkia	
			Euri zuri		
			3		
Kasik	Aurizki latindar		Espartako esklaboa		
Uneoro	Iridioa		Röntgen		
		Gaixo		Lehena eta azkena	Potasioa
		Kontso-nantea		Nitrogenoa	
Gure planeta			Garai bateko Perukoak		


Hitz Gezidunak

(LUMA)

*irudia:
Aramaion jaiotako
(1895-1945) euskal
idazle gartsua,
euskaraz eginiko Fisika
eta Kimikako lehen
liburuen autoreak:
"Fisia" eta "Kimia".

Soluzioa: 38. orrialdean


ARABAKO ARGAZKI ELKARTEA



Egilea: TOÑO ANTON

“Gau-argazkiak, sortzeko aukera handiak ematen dizkigu: esaterako, gure kamerarekin abiadura motela badarabilgu eta hartualdiaren unean bertan mugituz gero, argiek (kasu honetan farol txikiak eta zuziak) irudiaren eskuratzeak iraun bitartean (segundu erdia, segundu bat, hainbat segundu, baita minutuak ere) marraztutako lerro dinamiko eta deigarriak ekarriko dizkigute”.

(geu-k itzulitako testua)



III. ARGAZKI RALLIA: ARABA ETA NATURA

EKAINAREN 8an

Antolatzaileak, eta informazioa: Arabako Natur Institutua (945246606) eta Arabako Argazkigintza Elkarte (945243922 / sffa@infonegocio.com)

Izena ematea: ekainaren 2tik 6ra, edo egun berean (karreteak agortu arte), goizeko 8etatik 10etara, Argazkigintza Elkarte (Pedro Asua 2-2.a-UNED eraikina-Apaizgaitegia).

josune velez de mendizabal

Kultur errota


hilez hile euskaraz

Geu elkartearen eskutik gozatzeko aukera

Euskal eta euskarazko kulturaren eskaintza Gasteizen indartu eta zabaltzen ari dena badira hiru urte GEU Elkarteak hilean behin kultur emanaldi bat eskaintzen duela. Antzerkia, ipuin kontalariak, musika taldeak, bakarlariak, diaporamak, dantzariak, eta orokorrean kulturak eta arteak euskaraz eskaini dezakeen edozein modalitate ekartzen du zuen, euskaldun guztien eskura.

Orain arte asko izan dira GEUren agertokitik pasa diren kulturgileak, batzuk aipatzearren: Txuma Murugarren, Ramon Agirre, Koldo Amestoi, Jon Maia eta Karidadeko Benta, Kike Amonarriz, Asisko Urmeneta, Kirmen Uribe, Petti, Igor Arzuaga, Amaraun, etab. Hilaren azken astearteetan **Parral tabernan iluntzeko 20.30etan** duzue hitzordua. Ez ahaztu eta gogoratu **EKAINAREN 24an BIHAR BERRIZ POP-ROCK TALDEA** arituko dela, aurtengo kultur errota urrira arte agurtuz. Ez ezazue aukera galdu eta etorri gauza berriak ezagutzera, zuentzat da eta!

Azarotik ekaina bitartera doa GEU Elkartearen kultur errota biran eta biran. Aurten Geurekin izan ditugun kulturgileen errepasoa eginez honako zerrenda eder hau sortu da. Eskaintza polita, ezta?



AZAROAN: IGOR ARZUAGA
audioarraren estreinako diskoaren emanaldia.

ABENDUAN:
GEU ELKARTE ETA ALDIZKARIAREN
10. URTEURRENA: KOKEIN talde eibartaren
lehendabiziko diskoaren aurkezpena
Gasteizen, Tapioca tabernan.

URTARRILEAN:
ENEKO ETXEBARRIETA gasteiztarak
munduan zehar txirringaz lau urtez aritu
ostean bere diaporama Geurekin aurkeztu
zuen lehenengoz.

OTSAILEAN:
BERTSO MUSIKATUAK: musika, kantak,

bertsoak, dantza eta filminak uztartzen
zituen saio berritzailea Jose Ramirezen
eskutik.

MARTXOAN:
BUHAMIAK: Doro Zobarán kale
kontalaria eta bere musika tresnak.

APIRILEAN:
GILKITXARO Antzerki Talde
deustuarraren antzezlan berria, ELEVATOR.

MAIATZEAN:
LABRIT bakarlariaren emanaldia.

EKAINAK 24:
BIHAR BERRIZ pop-rock musika taldea.

geure gomendioz

literatura. liburua TXAKURRA DAUKAGU ETXEAN, ETA ZER?

Egilea: Fina Caselderrey
Marrazkilaria: Mikel Valverde
Eta zer? saila
8 urtetik aurrera
5,50 euro

mak kalean txakur abandonatu bat aurkitu, eta etxera ekarri du. Gurasoek txakurra ikustean garrasi egin dute asaldatuta, txakur bat etxera sartzea ez baita txantxetako kontua. Txakur bat etxera ekartzean, etxeko bihurtzen da, eta horrek erantzukizuna esan nahi du: txakurra zaindu egin behar da, bere beharrak ase, eta dagokion errespetuarekin tratatu. Horregatik, hasieran tirabira sortuko da gurasoen eta Imaren artean. Neskailak txakur bat izatearen abantailak besterik ez baititu ikusten; gurasoek, berriz, lana besterik ez. Baina Ton, txakur guztiek bezala, maitasun handia emango die etxeko guztiei, eta maitasunak maitasunari dei egiten dionez, azkenean etxeko bihurtuko da.

Bistakoa da Fina Caselderrey idazle galiziarrek oso gogoko dituela txakurrak, eta istorio dotore eta eder honen bidez txakurrak gure lagunik onenak izan daitezkeela erakusten digu, eta, aldi berean, txakurrekiko errespetua eta begirunea eskatzen du.

Mikel Valverde marrazkilariak lan aparta egin du ipuin honetan, batez ere Ton txakurraren sentimenduak azalduz eta girotuz. Testuaren eta marrazkiaren arteko uztarketa bikaina lortu du.

(elkarlanean argitaletxearen eskutik)

Literatur lehiaketa

ekaineko galdera (maiatzeko berbera, ez baita irabazlerik egon):
Joxean Sagastizabal idazleak idatzi azken bi liburuak zeintzuk dira?
Bidali erantzuna posta arruntaz edo elektronikoz (geugaste@gm.es) eta "Txakurra daukagu etxean. Eta zer?" liburua irabazteko aukera izango duzu.

berria berri



komikia



Misterio doktorea eta Milango misterioak, Castelli & Filippucci

(jean françois sauré
argitaratzailea)

Misterio doktorea Milanera joan da metroan gertaturiko desagertze bat ikertzera. Triada txinatar batek erasotzen dionean, ohartu egingo da Radetsky (hiria mendean hartua daukan austriarra) konplot baten antolatzailea dela.

geure eskaintza

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

geu elkartearen ekimenez

AZKEN SAIOA

Ekainaren 25, asteazkena

Joseba Sarriñandia, Lagun izoztua.
Elkar, 2001.

LEKUA: Hikaateneoa, Pintore kalea
13 (alde zaharra).

ORDUA: 20:00etan

geurekin mendira

zatoz geurekin mendira!

Ekainaren 15ean

PAGASARRI (839).

Durangaldean

Irteera tokia: Lovaina plazan, goizeko
9.00etan

mintzalagun egitasmoa

Euskaraz mintzatzeko, euskaraz jende berria ezagutzeko, euskaraz ondo pasatzeko...
Astindu lotsa eta deitu elkartera (945222153-Josune).

Deitu eta emango dizugu informazioa (Josune).

kangeuroak

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@gm.es

• Ordutegi guztiak

Maria. 656745969/Miryam. 656761588

• Arratsaldeak

Patxi. 652743205

• Gazeak

Nerea. 658733934

• Asteburuak

Nagore. 945281124/Marta. 606415235

denbora-pasaren soluzioa

(35. orr.)

	J	B	J	B	J	S	J	H	J
	J	I	R	A	B	I	R	A	K
	J	L	J	S	A	T	I	R	A
J	G	J	O	T	I	T	I	S	J
J	A	U	R	E	G	I	J	A	L
J	B	R	I	G	A	D	A	J	E
A	R	R	A	I	N	A	J	E	L
J	I	A	J	A	D	J	I	L	O
B	E	T	I	J	E	R	I	J	A
J	L	U	R	R	A	J	I	N	K

*Gabriel (Gabi) Jauregi



Oro il boro bil



Araba Euskaraz
2003ko Ekainaren 8an
Dion



25 lagun
& 25na harpidetza &
25 sari



SARIAK:

**SARIA, BAINA MARATOIAN LEHENA DEN
DU:**

*1. SARIA: ASTEBURRIKOTIKO NEKAZAL-
TURISMOAN, GOSARITAN (sukaldea erabiltze-
ko aukerarekin) 20era arte aituko da...

*GAINA
BAI...
REN 500...
...an ama...
...KOAK DIRA (ZOZKETA BIDEZ
...ILEEN ARTEAN):

EN eskutik, 2 AFARI, 2 lagunentzat

ARREDO ONDU (KRIANTZA), BESA bodegaren eskutik
 E LIBURU & CD, Casa del Libro eta Arriaga liburudenden eskutik

2 TELEFONO MUGIKOR

***2 ARGAZKI MAKINA**

*2 ERLOJU

*2 MOTXILA

***ZINEMARAKO 10 SARRERAKO 3 BONO**

***150 EUROKO 2 SARI**



argi ibili eta izena emateko ez bitan pentsatu, bestela txanda galduko duzue!!!